

Herririk Herri | 3

Kulunkan Ikas/Jolas Gunea sortu dute
2012ko Gabonetarako



Berbaz | 8

Mireia Elkoroiribegaz, ospakizunak
antolatzeko sortu duen enpresari buruz

Amalurra | 18

Bizikletak erosteko diru-laguntzak
emango ditu Durangoko Udalak

DURANGO | 2


Eztabaida trenak lurperatzeko lanak direla-eta

63 urteko emakume durangar bat trenak harrapatuta hiltzeak mahaigaineratu du gaia.



KIROLAK | 17

II. Ziklo-kros Sari Nagusia eta mendi bizikleta ibilaldia Berrizen



DURANGO | 2

Bihar itxiko dute Erralde, Jaurlaritzaren aginduz

Hiltegiko arduradunak Osasun Sailagaz batzartuko dira berriro, urtarrilaren 18an

Hainbat eragilek gogor salatu dute Bizkaia hiltegi bat bera ere barik gelditzea



Hainbat udal ordezkari, sindikatueta kide, baserritar eta harakin batu ziren atzo Durangoko hiltegian. Kepa Aginako

Mañaria | 4

Erroldaren %37k eman du iritzia herri-galdeketan

Iurreta | 6

Euskara biziberritzeko plana onartu du udalak

Atxondo | 4

Udal kontuen auditoria egitea eskatu du EAJK plenoan

Durangaldea | 7

Erretzeari uzteko ikastaroak prest ditu Amankomunazgoak

Z&R MODA

Astarloa 9
Durango
94 657 09 73

Kalitaterik onena preziorik onenean - Behar duzun guztia zure eskuetan

HERRIRIK HERRI >

f Anboto Komunikabideak

@anboto

DURANGO

Erralde itxita, Bizkaia hiltegirik barik geratu da

Osasun sailagaz hilaren 18an batzartuko da Erralde; hiltegia ahalik eta arinen zabaltzea gura dute

Jaurlaritzak horrela aginduta, gaurkoa izango da abelburuak hiltzeko azken eguna Durangoko hiltegian. Osasun Sailagaz batzartzekotan dira Erraldeko arduradunak, datorren urtarrilaren 18an. Mikel Ansotegi presidentek azaldu duenez, "hiltegia zabalik mantentzeko zer neurri izango diren nahikoa" jakin gura dute: "Prest gaude edozein neurri hartzeko, hiltegia ahalik eta arinen berriro zabaldu dadin".

Itxiera aginduaren jakinarazpena abenduan jaso zuten Erralden, eta eguaztenean heldu zaie itxieraren arrazoiak batzen dituen ebazpena. Erralde eta Bizkaiko EHNEK errekurtsioa aurkeztuko dutela jakinarazi dute. Azaldu dutenez, jaso duten idatzian ez dira 2007tik hona egindako "hobekun-

Erralde eta Bizkaiko EHNEK errekurtsioa aurkeztuko dute itxiera agintzen duen ebazpenaren aurrean

tzak" aipatzen, ezta Berrizko hiltegia eraikitzeko eman diren pausoak ere.

Osasun Sailak adierazitako "hutsune batzuk" konpontzen dihardutela adierazi du Ansotegik, eta astelehenetik aurrera ere arazo tekniko horiek konpontzen jarongo dutela.

"Hiltegiko egituraren arazoa behar egiteko neurri berrieekin konpondu daiteke"

Egitura da hiltegiaren arazo nagusia. Osasun sailetik adierazi dutenez, "U forman lan egiteko modu linealera pasatu ezean ezin da hiltegia zabaldu". Mikel Ansotegik adierazi du "behar egiteko moduan neurriak hartuta" konpondu daitekeela arazoa. EHNE sindikatuko Unzalu Salterainek gogoratu du Europako araudiak hiltegi txikiei "legeak malgutasunez aplikatzea" ahalbidetzen dutela.



Ehun pertsona baino gehiago batu ziren atzo kontzentrazioan eta ondorengo batzarrean.

Oñatiko aukera

Salterainek itxieraren aurrean salatu duenez, "Bizkaian hiltegi barik ezin da ez baserritarri egon ez okela produktiorik mantendu".

Durangon egon den jarduerari irtenbidea emateko aukera Oñatiko hiltegia izan daitekeela aipatu dute: "Erralderen antzeko filosofiagaz sortutakoa da, eta sektorea horra bideratu daitekeela uste dugu". Edozelan ere, ez dau-

Lana Oñatiko hiltegiara bideratzekotan daude; ez dakite gaitasunik izango duen

de seguru Durangon urtean hiltzen izan diren 10.000 buruak bideratu daitezkeen.

Eragileen babesa

Atzo hiltegiaren itxiera salatzeke kontzentrazioa egin zuten hiltegiaren aurrean. Bertan ehun herritar baino gehiago batu ziren sindikatu, udal arduradun, baserritar eta eragile artean. Asteon hainbat eragilek erakutsi dio babesa hiltegiaren proiektuari.

Ezker Abertzaleko Niko Morenok kontzentrazioaren ondoren adierazi duenez, "borondate politikoa adierazteko unea" da hau, "ez trabak ipintzekoa". Eusko Jaurla-

ritzari eta Aldundiari proiektuaren alde behar egiteko eskatu die.

ELA sindikatuak, bere aldetik, ohar baten bitartez eman die babesa Erralde egitasmoaren inguruan lanean dabiltzan eragileei. ELAK adierazi duenez, "harrigarria" da "ia herri-erakunde guztiek eta zenbait alderdi politikok hiltegiaren aldeko adierazpenak egitea komunikabideetan, eta aldi berean herri-erakunde horietatik izatea gero Berrizko hiltegi berria eraikitzeko bidean egon diren atzerapen guztien errudunak". ■ A.U.

> Bideoa: www.anboto.org

Trenaren lurperatzea berbagai, asteleheneko istripua eta gero

63 urteko emakumea harrapatu zuen trenak Landakoko pasabidean



Trena Durangotik Ermurako noranzkoan zihoan.

Landakoko geltokiaren ondoan gertatu zen ezbeharra, astelehenen, 13:15 inguruan. Trenak aurretik eramanda, 63 urteko emakume bat hil zen. Euskal Trenbide Sareak (ETS) azaldu duenez, "lehe-

nengo zantzuen arabera, ezbeharra gertatu zenean trenbide-pasaguneko hesiak jaitsita zeuden eta trenaren etorreraren berri ematen zuten argi eta soinua abisuak ere martxan zeuden".

Obrak hiru urte atzeratu dira. Epe berria 2013 erdialdean ezarri du Eusko Jaurlaritzak

Trenaren lurperatzea

Istripuak trenaren lurperatzearen gaia mahaigaineratu du Durangon. Obren atzerapena hiru urte baino gehiagokoa da. Jose Luis Bilbao ahaldu nagusiak azaldu duenez, "Eusko Jaurlaritzak trenaren lurperatzean inbertitzeari utzi dio". Obrak urtebetean "geldirik" daudela salatzeaz gainera, trena lurperatu eta gaur egun dauden pasabideak kentzeko eskatu du.

Garraio Sailetik ahaldu nagusiaren kritikei erantzun diote. Bilbao "errealitatea desitxuratuz, polemiken jauna" dela azaldu dute. Trenbidea lurperatzeko lanen %74 eginda dagoela gaineratu dute. 2001ean proiektuak 67 milioiko aurrekontua zuela, eta azken inbertsioa 219 milioikoa dela gogoratu dute.

Epe berriak jakitera eman ditu Garraio Sailak. Aurten lurrazpiko geltoki berriaren lanekin jarraitzea aurreikusten dute; teiltuagaz, batez ere. Euba-lurreta zatietako lanekin eta Lebarioko tailerren eta kotxetegiaren eraikuntzagaz jarraituko dute. Traña-Lebario zatien bikoizketa lanak amaitzea aurreikusten dute. Aurten 12,9 milioi euroko diru-atala dute, eta 2013ko 14,3 milioiekin datorren urteko erdialderako trena lurraz-

pitik pasatzea itxaroten dutela jakitera eman dute.

Aralarrek trenaren lurperatzearen auzia eta istripua bereiztu gura izan ditu. Ildo horretatik, lurperatzearen atzerapena arrazoi ekonomikoetara egotzi die, eta "beste proiektu batzuei lehentasuna emateari".

Pasaguneetako jazoeren agiriak eskatu dizkio Aralarrek Eusko Trenbide Sareari

Pasaguneetako jazoerak

Astelehenean bertan ezagutu zuen Aralarrek trenbide-pasaguneetan hesiak igota egon direla eta Legebiltzarrean Iñaki Arriola garraio sailburuari egindako galderen erantzunak. Irailean eta urrian hiru jazoera egon zirela onartu du Arriolak. Horietatik bi giza-akatsak izan zirela dio, eta beste bat arazo mekanikoek sortu zutela. Azken hiru urteotan pasabideetan gertatu diren jazoeren barne agiriak eskatu dizkio Aralarrek ETS-ri. "Azpiegiturak hondatuta dauden edo mantenua eskasa izan ote daitekeen jakin gura dugu", azaldu du Dani Maeztuk. ■ J.G.v/

Unibertsitate Orientazio Azoka Jesuitak ikastetxean

Unibertsitatean ikasi gura dutenezko Orientazio Azoka antolatuko dute, datorren egunean, Durangoko Jesuitak ikastetxean. Egun osoko egitaraua prestatu dute interesdunek infomazioa eskuratu ahal izateko; jardunaldi zabala izango dela iragarri dute.

Goizetik hasita, hainbat mahai-inguru eta tailer garatuko dira. Ikasle ohiek zabalduko dute jardunaldia euren esperientzia kontatuz, 12:15ean. 15:15ean *Hezi-*

Urtarrilaren 19an jardunaldi irekia egingo dute berbaldi, saio praktiko eta mahai-inguruekin

ketaren zentzua izenburupean berbaldia eskainiko du J.M. Larrañagak. Ordu berean saio praktiko hauei ekingo diete Batxilergoko ikasgeletan banatuta: *Bur-tsa, Gaurko hezitzaileen erronkak, Ingeniaritzak eta Informatika eta bideojokoak*. Tailer horietan parte hartu gura duenak Tuenti edo Facebook sare sozialen bitartez eman beharko du izena. ■ M.O.

Kulunkan Ikas/Jolas Gunea sortu dute 2012ko Gabonetarako

Hainbat eragile elkartu dira hiru guneko jolastoki hezitzailea antolatzeko

Industria kulturaletik bultzatzen den aisialdi eredu joera kontsumista eta parte-hartze pasiboan "galduta" dagoela uste dute Kulunkan egitasmoan batu-

Hiru gune izango ditu: Umeena, gazteena, eta nerabeena eta gurasoena

tako taldeek. Hori horrela, hainbat balore lantzeko eta haur, nerabe eta gazteen "heziketa integratua bultzatzeko" esperientzia pilotua ipiniko dute martxan



Plateruenean aurkeztu dute egitasmo berria, martitzen honetan.

Durangon, 2012ko Gabonetan: Kulunkan Ikas/Jolas Gunea.

Kulunkan egitasmoa aisialdi hezitzaile eta euskaldunean diharduten hamaika eragilek osotzen dute: Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK), Ikastolen Elkarte, Sortzen Ikasbatuaz, Urtxintxa Eskola, Gurasoen Elkarteak, Amarauna sarea, eta Durangaldeko Berbaro, Zeozer, Geu Be, Kimuak eta Zapaburu konpartsa.

Egun bi eta hiru gune izango lituzkeen jolastoki hezitzailea antolatuko gura dute haur, nerabe, gazte eta gurasoei zuzenduta.

Hainbat baloretan sakondu gura dute, eta urte osoko lanketa egingo dute

Jolastokian landu gura dituzten hainbat balore nabarmendu dituzte: euskara eta aisialdi euskalduna, kulturartekotasuna, aukera berdintasuna, hezkidetzak, lankidetzak, elkartasuna, gatazken konponbidea, ingurumena eta jasagarritasuna. Urtean zehar asanbladak eta gaikako batzordeak sortzea aurreikusi dute gaian sakontzeko, eta mintegi irekiak ere antolatuko dituzte, lehenengo otsailean. ■ A.U.

> Bideoa: www.anboto.org

ELORRIO

EAJk eta Bilduk onartu dute 2012rako aurrekontua

8.135.767 euroko aurrekontua da, iazkoa baino 1.035.000 euro gehiagokoa; PP abstenitu egin da

Aurrekontuak osatzean "krisiaren testuinguruan premia gehien dutenei laguntzea" gura izan dutela adierazi du EAJk. Bilduk parte-hartze falta salatu du, baina gutxienekoak onartzeko prest azaldu da.

Gastu sozialetan, ume jaioberrien familientzako erosketak bonuak ematea onartu dute

269.000 euro aurreikusi dituzte Zenita eta Berrioko ur hornidurarako

(12.000 euro), eta garapen bidean dauden herrialdeentzako partida 40.000 eurora igo dute. Presoen senitartekoentzako diru laguntza Elorrioko Familientzako Laguntzak izeneko partidan aurreikusi dute (47.500 euro). Turismora 167.000 euro bideratuko dituzte.

Inbertsioetan, Zenita eta Berrioko ur hornidura (269.000 euro), Anduetxeta eta Urarkako urbanizazioak, argiteria berria (60.000 euro) eta Aldatzekuan ariketa fisikoen parkea (28.000 euro) daude, esaterako. ■ A.U./M.O.

Ikastetxeko fatxada konponduko dute

Segurtasuna handitzea ere badute helburu; 322.000 euroko diru-laguntza jaso du udalak

Elorrioko Udalak xafla isolatzaileak eta babesleak ipiniko ditu Herri Eskolako fatxadan. Helburua, alde batetik, eraikina egokitzea da Eskola 2.0 ekimena martxan jartzeko behar diren azpiegiturekin; bestetik, ikastetxea babestu gura dute, "azken boladan jasandako gizalegezoak ez diren ekintzetatik": 2010. urtean, udalak 22.300 euro ordaindu behar izan zituen apurtutako kristalak konpontzeko. "Ikastetxeak geroago eta ordenagailu eta balio handiko material gehiago du.

Beraz, beharrezkoa da bertako segurtasuna handitzea", azpimarratu du Ana Otadui alkateak.

Gainera, udalak zainketarako kamera zirkuitua ipiniko du Herri Eskolako eraikinean. Lan horien aurrekontua 16.137 eurokoa da. ■ J.G./M.O.

Udalak zainketarako kamera zirkuitua ipiniko du Herri Eskolako eraikinean

Atsekabea 24 urteko gaztearen heriotzagatik

Elorrioko udal korporazioak doluminik "sentituenak" eskaini gura izan dizkie joan zen barikuan, Errege Egunez, lonja batean sortutako suaren eraginez hildako herriko 24 urteko gaztearen lagunei eta senideei. Domekan agerraldia egin zuten udaletxean, "herri osoa astindu duen zorizaiztoko" gertakariaren harira.

Ertzaintzaren arabera, sua berez itzali zen, baina gazteak arnastuta hil zen. Lo zegoen, auzora joateko autoa hartu beharrean bertan atseden hartzea pentsatu zuen-eta. ■ A.B./M.O.

Astelehena **ASTELEHENGORRI** -%10

Asteartea **ARINARIN**

Asteazkena **AHOBETEMUNDU**

Osteguna **GEUREKONTU**

Ostirala **BARIKUNASAI**

Astelehenetik zapatura egunero aukeran:

Menu ekologikoa

Menu begetarianoa

Haurrentzat menu erdia

Eskatu MENU TXARTELA 10. menua OPARI

PLATERUENA KAFE ANTZOKIA Landaka etorbidea, 4 A
- 48200 Durango Jabetza: 946030300

MAÑARIA

Erroldaren %37k eman du iritzia domekako galdeketan

Hamasei urtetik gorako 167 mañariarrek hartu zuten galdeketan parte



Lehenagoz burutu dute herrian modu honetako herri-galdeketa bat.

Hainbat fasetan garatzea gura duten Irisgarritasun Plana nondik nora garatu zehazteko "gida" moduan erabiliko dituzte, udal gobernuaren berbetan, domekako herri-galdeketa emaitzak. Hamasei urtetik gorako mañariarren %37k (167 herritarrek) eman zuten urtarrilaren 8an euren iritzia, irisgarritasunagaz lotuta, udalak proposatutako hainbat aukerari buruz.

Herrian zabor bilketa guneak zelan kokatu erabakitzeko, aukera bi aurkeztu zizkien udalak herritarrei. Endika Jaio Bilduko alkateak azaldu duenez, aukera biek jasotako bozka kopurua antzekoa izana

Galdeketa aurretik egin zituzten batzarretan 90 lagunek hartu zuten parte

Hilerrirako sarbideari eta zabor bilketa guneen kokapenari buruz eman zuten herritarrek euren iritzia

nik, "gai horri dagokionez ez dago joera argi bat".

Hilerrirako sarbideari eta irigarritasunari buruz, aldiz, bi bider bozka gehiago jaso zituen auke-

retako batek: eskailerak eta arrapala, biak eraikitzea aurrakusten duen proposamenak, hain zuzen.

Horrelako prozesu bat martxan ipini duten lehenengo aldia izanik, "parte-hartzeagaz oso pozik" agertu da udal gobernuak, eta galdeketa aurretik etxe egin zituzten batzarretan 90 lagunek parte hartu zutela nabarmendu dute, besteak beste.

Batez ere hirigintza gaietan udalaren lehenetsunak zeintzuk izan behar diren zehazteko domekakoalako herri-galdeketa baliatuko dituztela aurreratu du udal gobernuak: Plan Orokorra berrikusteko, esaterako. ■ I.E.

BERRIZ

Sanantonioak ospatzera, gaur iluntzean hasita

Iluntzeko 20:00etan altxatuko dute Donien atxa Olakueta plazan berriztarrek. Aurretik, baina, Sagar-dotegi Ibiltaria eta odoloste-jana prestatuko dituzte, 19:30etik aurrera. Zuzarazu taldeak girotuko du

jai hasiera hori. Hurrengo egunetako egitarauan pilota txapelketako finalak -zapatuan- eta Eskualdeko XXXI. Barazki eta Fruitu Erakusketa -domekan- datoz, esaterako. San Antonio egunez

-martitzenean- nekazalolinpiadaren bueltan elkartuko dira, arratsaldeko 19:00etan.

Gaztetxean ere ez da faltako ekimenik. Gaur Froufe eta Ni Neu bandek eskainiko dute kontzertua; bihar, Zain-ek eta Mafiak. Baserritar Eguna izendatu dute urtarrilaren 14a, eta bertso-bazkaria zein poteoa ere izango dituzte egun-pasa egiteko. ■ M.O.

IZURTZA

Sua piztu da biltegi moduan darabilten enpresa batean

Biltegi moduan erabiltzen duten Elizalde auzoko pabilioi batean piztu zen sua, martitzenean, 09:00ak inguruan. Ertzaintzak emandako informazioaren arabera, teilatuan egiten zebiltzan obretan sortutako txinparta batek eragin zuen sua.

Ertzaintzak adierazi duenez, ordubetean, 10:00etarako, amatatuta zegoen sua

Hutsik zegoen su hartu zuen eraikina, eta, suhiltzaileek jakinarazi zuten, ez zen inor zauritu. Sua piztu eta ordubetera, 10:00ak aldera, amatatuta zegoen sua, Ertzaintzaren arabera.

Izurtza eta Durango arteko eremuan dago sua hartu zuen Elizalde auzoko enpresa kokatuta, eta Abadiñoako Muntzaratz auzoan ere somatu zuten suteak erangindako kea eta plastiko erre usaina. ■ A.B./I.E.

ATXONDO

Udal kontuen auditoria egitea eskatu du EAJk udalbatzarrean

EAJkudaleko diru kontuen auditoria eskatu zuen urteko azkeneko udalbatzarrean, eta 2012ko lehenengo plenoan udalaren diru kontuei buruz berba egitekotan geratu ziren: "Aurreko gobernu taldeak guri eskatu zigun legez, guk ere eskatu gura dugu pasatu diren lau urteetako auditoria", azaldu zuen Jose Antonio Igarza zinegotzi jeltzaleak.

Bestalde, Hirigintza Batzordea eta Ingurumen Batzordea batzea ere proposatu zuen EAJk. Bi batzordeak "oso lotuta" daudela eta lantzen diren gaiak "eten barik gurutzatzen" direla adierazi zuen Gaizka Uriarte zinegotziak. AHTaren gaia aipatu zuten bereziki.

Rosa Elizburu alkateak azaldu duenez, batzorde biek "gai asko" dituzte momentu honetan: "Hilean behin elkartu eta gai denak batzorde bakarrean lantzea larregi dela pentsatzen dugu". Horrela, Bilduk EAJk aurkeztutako proposamenaren kontra bozkatu zuen. ■ J.D.

OTXANDIO

Zaharren egoitza ondoko etxea erosi gura du udalak

Datozen sei urteetan 132.000 eurotan erosi luke, urteroko ordainketa progresiboen bitartez

Urtea amaitu aurretik udalaren egoera zein den eta 2012rako aurreikuspenak zeintzuk diren azaldu zuten Kultur Etxean egindako deialdi irekian. Urtarrilaren 26ko udalbatzarrean onartu gura dituzte aurrekontuak. Hainbat inbertsio dituzte aurreikusita. Batetik, erresidentzia ondoko etxea erosteko lehenengo ordainketak egingo dituzte. Eraikina

Gura duenak ekarpenak egin ahal dizkie aurrekontuei, proposamena udaletxean jasota

erosteko akordioa lotu dute jabeagaz (132.000 euro), eta sei urtean progresiboki ordaintzen joatea da asmoa. Baliteke eraikin hori erresidentziak behar dituen zerbitzu berriak atontzeko erabiltzea, baina herrian suertatu daitezkeen bestelako beharrezararako ere.

Inbertsioen beste atal bat Iturizarreko aparkalekua egitea bideratu gura dute, horretarako 177.000 euroko diru-laguntza jaso dutelako Jaurlaritzatik. Mainerrota alderako sarrera ere mugatuko lukete, eta aparkalekutik bolatoki atzera oinezkoentzako bidea egingo dute. ■ J.D.

katerin ardoak
iñaki uribe
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

goizeko 08:00etatik gabeko 21:00etara zabalik

clínica dental hartz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

{ odontologia orokorra eta espezialitateak }

muruetatorre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa 48200 IURRETA

Tf.: 946 205 187
Faxa: 946 205 194

“GAURSAAn erositako ibilgailua benetako kide bat bezala izango da zuretzat.

Eta hitza betetzen ez badut, ni arduratuko naiz urte guztian zehar goiz jaiki eta zure negozioarako erosketak egiteaz.”

Andonik esana



Andoni Baños,
Gausako Aukerako
Ibilgailuen Arduraduna

**RENAULT
OCASIÓN**

GAURSA AUTOAK

ARRIANDI 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA.
GRAN VÍA 65. TEL. 94 441 74 50. BILBAO.

www.gausaautoak.com



ABADIÑO

Baserritarren zaindariaren eguna ospatuko dute hilaren 17an

Urtarrilaren 17an, *Ogia bedeinkatu eta zatitu egizu* goiburuagaz ospatuko dute Urkiolako zaindariaren, baserritarren eta abereen zaindariaren San Anton Eguna Urkiolako Santutegian.

Jadanik martxan dauden 92 ekintza zehatz batzen ditu kudeaketa planak

Meza nagusia egingo dute 12:00etan, eta "ogia, ortuariak eta abereak ere bedeinkatuko" dituzte, 13:00etan eta 18:00etan burutuko dituzten mezetan ere.

Urtarrilaren 22rako antolatu dute, bestalde, Errepetizino Domeka Urkiolan. Mezak, Abadiño txistularien emanaldia eta San Antonen zozketa daude, besteak beste, egun horretarako antolatu dituztenen artean. ■ I.E.

Traña-Matienako eskolako lanetarako diru-laguntza

Hezkuntzako iazko lanak ordaintzeko %60ko diru-laguntza Jaurlaritzatik



Iaz burututako hainbat lan ordaintzeko baliatuko dute laguntza.

Traña-Matienako eskolan egin dituen hiru proiektu finantzatzeko, eta eskoletan beste eraberritze-lan batzuk egiteko, 789.468,02 euroko diru-laguntza jaso du Udalak Eusko Jaurlaritzatik. Traña-Matienako eskola ondoko erabilerako askotako eraikina eraikitzea, eskoleta-patioaren esparru estalia eta eskolen ondoan dagoen pilotalekuko oztopo arkitektonikoak kentzea diruz lagundu du.

Hezkuntza Sailak emandako diru-laguntza 789.468 eurokoa da guztira, eta horren bitartez hainbat lanek eragin duten kostuaren %60 berreskuratuko du udalak.

Jose Luis Navarro alkateak azaldu duenez, eskola eremuan erabilerako askotarako eraikina altxatzea izan da udalak 2011n burutu duen lanik garestiena. Udalarik emandako %60ko laguntza hori Jaurlaritzak laguntza-ildo horren barruan ordain dezakeen "kopururik handiena" da.

Iaz burututako lanetakoaz gainera, Jaurlaritzak 214.532 euroko diru-laguntza eman dio udalari, 2012an beste hainbat eraberritze-lan burutzeko. ■ I.G./I.E.

IURRETA

Euskara biziberritzeko plana onartu dute

Euskaraz bizi gura duten herritarrei horretarako aukera eman gura die onartu berri duten planak

Urtea amaitu aurretik onartu zuen udalak, ahobatez (EAJ, Bildu, PSE-EE eta PP), Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN), euskaraz bizi gura duten herritarrei horretarako aukerak eskaintzeko behar diren neurriak erabakitzea eta bultzatzea helburu hartuta. Martxan dauden 92 ekintza zehatz batzen ditu horren baitan onartutako kudea-

keta planak, eta aurrera eroateko diru-atala lotu gura dute 2012rako aurrekontuan.

EBPN eta Erabileren Plana onartu dituzte. Besteak beste, familia transmisioa, irakaskuntza, lan mundua, aisia, kirola, teknologia berriak... landu dituzte; administrazioa ere bai, horri "tratamendu berezia emanez", Iñaki Toto-

rikaguena alkateak esan duenez. EBPN zehazteko 13.000 euro erabili ditu udalak orain arte.

Erabileren eragin

"Euskararen sustapena gidatzeko eta euskalgintzako elkarte eta erakundeekiko elkarlana bideratzeko erreferentzia" da, alkateak dioenez. Euskararen erabileren eragin gura du agiriak, eta "egokitzeko" sortu da, "herrigintzako eta gizartegintzako sektore eta taldeen ekarpenez aberasteko". Elhuyar Aholkularitzaren laguntza izan dute, eta Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Horieketa prozesuan parte hartu duten langile zein herritarrek izan dituzte gogoan. ■ A.B.

gutenez, eta eguerdi osterako egingo dute buelta. Ez da behar izena ematea; jarritako hitzorduan, egunean bertan agertzea nahikoa izango da. Joan-etorria kotxez egingo da, eta bazkaltzeko aukera egongo da: 626 740 969 / www.zaldaimenditaldea.org/zaldai@hotmail.com. ■ A.B.

San Sebastian jaiak abiatuko dituzte Bakixan

Donien atxa altxatzeagaz batera hasiko dituzte, gaur 21:00etan, San Sebastian jaiak, txokolatea banatuz, eta asteburu ekintzaz beteta dator. Bihar tiro-txapelketa jokatu dute 11:30ean, eta 21:00etan bakailao txapelketako parte-hartzaileek kazola aurkezteko ordua izango dute. Domekan kalejirak hasiko du eguna, 10:00etan, eta 17:00etan briska txapelketari ekingo diote. Maiztegiko dantza taldeak eskainiko du saioa, eta gero jolasak eta txokolatea egongo dira.

San Sebastian egunez, 20an, meza izango da 11:30ean. Ander eta Egoi trikitilariak girotuko dute ostekoa, eta arratsalderako igel txapelketa eratu dute. Hilaren 21ean asto probak, 18:00etan, eta Luhartzekin erromeria eratu dituzte; 22an, meza 11:30ean eta Mikel Deunakoen dantza saioa eta bertsolariak egongo dira. ■ A. B.

MALLABIA

Saharaiendako elikagai bilketa udaletxean

Tindufeko errefuxiatu kanpamenduan (Aljeria) dirauten saharaiendako elikagaiak bidaltzeko kanpainagaz bat egin du udalak. Pasta, azukrea, arroza, lekak, sardinak eta konpresak dira aurtengo aldirako ekimenaren bultzatzaileek eskatu dituzten produktuak. Elikagaiak udaletxera eraman daitezke, urtarrilaren 25era arte.

Pasta, azukrea, arroza, lekak, sardinak eta konpresak bidaltzea eskatu dute aurten

Udalak Durangaldeko elkar-tasun karabanagaz 2003an bat egin zuen, herri saharaiari laguntza bidaltzeko. Durangaldean batutako laguntzaz gainera, Euskal Herrian biltzen dituzten produktuekin abiatuko da karabana, otsailean. ■ J.G.

Jaizkibelen mendi ibilia egingo du Zaldai taldeak

Higer-ko lurmuturrean ibilaldia antolatu du Zaldai mendi taldeak biharko. Andaparapen batuko dira Jaizkibeiko amildegietan zehar

12 kilometroko bidea egingo du. Autobusak 08:30ean irtengo du.

Mendi ibilbideak ez dauka zailtasunik, Zaldaikoek azaldu

R.P.S. 21406

A. Urreta podología

- Oinetako patologiak
- Neurri-egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podinara Urreta Jainaga
PODOLÓGOA 188. Elkargokidea

GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Baimendutako harategia

Euskal Okela
Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO



Durungaldean labor

12 urteko kartzela zigorra Zengotitabengoarentzat

2010eko otsailean Portugaleko Obidos herrian aurkitutako leherkariak gordetzearren ezarri diote zigorra Andoni Zengotitabengoari. Fiskalak 15 urteko zigorra eskatzen zuen elorriararentzat, baina epaileak 12koa ezarri dio. Obidosen topatutako lehergaiak gordetzea leporatuta, operazio hartatik ihes egin ondoren Lisboako aireportuan atxilotu zuten hilabete ingurura. Geroztik badaezpadako kartzelaldian egon da.

Aralarrek dio udalaren ekonomia "kritikoa" dela

Durangoko gobernu taldeak oraindino aurrekontuen proposamenik aurkeztu ez izana salatu du Aralarrek: "Horrela udalaren egoera ekonomiko kritikoa ezkutatu gura dute, diru sarreren eta gastuen artean hiru milioi euroko desfasea dagoelako". Herritarrei "benetako egoeraren berri" eman diezaietela ere eskatu du Aralar alderdiak.

Hiru urteko kartzela Urbinako ekintzaileei

2009an Urbinan AHTkolanetara sartu eta han eseri ziren sei gazte; epaiak dio ertzainei harriak jaurti zizkietela. Sei ekintzaileei, guztira, hiru urteko kartzela zigorra ipini diete; tartean da Imanol Madariaga durangarra (zazpi hileko zigorra); hala ere, ez dute kartzelara joan beharrik izango.

6.661 erabiltzaile izan ditu Izotz Guneak

Abendutaren 26tik urtarrilaren 8ra zabalik egon den Durangoko Izotz Guneak 6.661 erabiltzaile izan ditu, iaz baino %12 gehiago (800 gehiago). Erabiltzaileen gehiengoa gaztetxoak izan dira: 4.644 guztira. Patinatzen irakasteko iaz baino zazpi ikastaro gehiago ere antolatu dituzte.

DURANGALDEA

Guraso Eskolako ikastaroak otsailean jarriko dituzte martxan

Durungaldeko Amankomunazgoak antolatutako Guraso Eskolaren ikastaroetan parte hartzeko otsailaren 16ra arte izena eman daiteke. Eskola-adineko seme-alabak dituzten aita eta amei zuzenduta daude.

Drogomenpekotasuna, osasuna, familiako kideen arteko komunikazioa eta arazoei irtenbideak emateko erak jorratuko dituztela azaldu dute. Bost dira antolatutako ikastaroak: *Prevención en la infancia a través de la comunicación y la autoestima* (LHn diharduten seme-alaben gurasoei zuzendua); *Adolescencia y drogas ¿como abordarlo?* (DBHko seme-alabadun gurasoei zuzendua); *Educación afectivo-sexual* (LH eta DBHko neska-mutilak dituzten gurasoei zuzendua); *¿Sabes lo que sientes realmente tu hij@?* eta *Risoterapia*. ■ A.B.

Ikastaroak erretzeari utzi gura diotenentzat

Tabakoa uzteko ikastaroa urtarrilean jarriko du martxan Durungaldeko Amankomunazgoak

Osakar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentek eta Vicente Fernández Drogomenpekotasunen Prebentziorako Zerbitzuko arduradunak azaldu dutenez, urtarrilaren 26an martxan jarriko dituzte erretzeari uzteko ikastaroak. Hiru hilabete zehar zortzi saio egingo dituzte parte-hartzaileek, 15-20 laguneko taldetan eta aditu batek zuzenduta. Hiru hilabetera jarraitpen-saioa egingo dute.

Hiru hilabete zehar zortzi saio egingo dituzte ikastaro horietan parte hartzen dutenek

Iaz tabakoa uzteko ikastaro bi antolatu zituzten. Hasieran %91k erretzen zuen eta, bukatzean, horietako %90ek utzi zuen; bes-

te %10ek kontsumoa txikitzea lortu zuen. Murrizte-metodoaren bidez lortu zuen erretzeari uztea %40k, beste tratamendu gehigarrikerik erabili barik. Gainerakoek laguntza terapiak erabili zituzten. 2011ko otsailetik maiatzera 18 lagunek parte hartu zuten. Urrian hasi zen bigarren ikastaroa, eta 2012ko urtarrilaren 12an amaitu da; 24 lagunek dihardute.

Izen-ematea

Urtarrilean goizez eta arratsaldean egingo dituzte bilerak, eskari arabera, eta parte hartu gura dutenek 20 euro ordaindu beharko dituzte. Badago dagoeneko izena ematea, 94 620 05 20 telefono zenbakira deituta, 09:30etik 13:30era edo prevencion.mdurango@bizkaia.org helbide elektronikora idatzita. ■ A.B.



Zarrabeitiak eta Fernándezek ikastaroaren berri eman dute.

ZALDIBAR

Taldeek ez, zinegotziek kobratuko dute

Talde politikoentzat izendatutako dirua kopuru minimora murriztu du udalak, Bilduren ekimenez

Talde politikoentzat izendatuta zegoen diru-kopurua kendu du udalak. Hemendik aurrera, taldeak 0,5 euro kobratuko du hilerro, eta zinegotzi bakoitzak 45 euro. "Udalaren egoera aintzat hartuta" proposatu dute neurria, Carmen Sampedro Bilduko alkateordeak azaldu duenez. Bilduren botoekin onartu dute mozioa, gainerakoek kontra bozkatu dute-eta.

EAJk eta PSE-EEK salatu dute Bilduk gainerako alderdiak "ito" gura dituela neurri horregaz. "Orain arte legez lanean jarraituko" duten arren, EAJk adierazi du diru hori "beharrezkoa" dutela alderdiek, eta erabaki horregaz ez direla gobernu taldearen partetik baloratuta sentitzen. "Bilduren

Aurrerantzean, taldeak 0,5 euro kobratuko du hilerro eta zinegotzi bakoitzak 45 euro

kontraesanak" salatu dituzte, beste herri batzuekin alderatuz.

Prozesu judizialera

Bestalde, Zaldibarko Udala prozesu judizialean sartuko da, Gobernuaren Ordezkaritzak epaitegietan salatu du-eta bandera espainola udaletxean ez ipintzeagatik. Aran-

"Udalaren egoera aintzat hartuta" proposatu dute neurria, alkateordeak dioenez

tza Baigorri alkateak udalbatzarrean esan duenez, udaletxean ikurrinak bakarrik segitu dezan saiakera egingo dute oraingo, eta epaitegiek ez badiete arrazoirik ematen, "ordu" ikusiko ei dute zer egin. Alkateak dio aspaldiko gaia dela honakoa, eta horren adibide dela EAJk ere ez duela bandera jartzerik gura. ■ M.O.

KzGunearen eraikina botako dute udan, Haurreskolan

Haurreskolako eraikina hartzen duen lurrari izaera aldatzeko espedienteari ekitea erabaki du udalak. Honela, KzGunea, fonoteka eta Helmuga elkartearen bilgune den eraikina botako dute udan. Etorkizuneko Haurreskolarentzat espazioa irabaztea dute helburu. Norabide berean, frontoi ondora lekualdatuko dute 2 urtekoen modulua. Pisu bakarreko azpiegituran, 2 urteko gela bi eta 0-2koa egokituko dituzte, alkatearen berbetan.

KzGunea, fonoteka eta Helmuga elkartearen bilgune den eraikina botako dute

KzGunean zeuden zerbitzuak leku barik geratzen direla-eta, "anbulategiaren eraikin luzea herriarentzat erabilgarri" ipintzeko asmoa dute; Osakidetzagaz eta Aldundiagaz hartu-emanetan dabilta. ■ M.O.

GARAI

Errematako enkantean batuko dira martitzenean

San Anton Eguneko tradiziozko ekimena da; batutako dirua ongintzarako bideratzen dute

Herritarren artean nork eskaintza handiagoa egin, hark eroango du produktua etxera. Ohiturari muzin egin barik, martitzenean Errematan elkartuko dira garaitarrak. 12:00etako mezaren ondoren hasiko da enkantea, abadeak lurra eta produktuak bedekatu eta gero. Oilarrak, untziak, arrautzak, ogia...

sorta zabala izan ohi da urtero San Anton Eguneko hitzordura herritarrek Elizabarrira dohaintzan eramaten dutena.

Produktu guztiek inbertitzen dute; iazko 1.200 euroekin Caritas lagundu eta elizako berogailua konpondu zuten. ■ M.O.



Iaz giro ederrean eta eguraldi onagaz egin zuten enkantea.

BERBAZ >

“Dirua ez da muga izan behar; ilusioz egiten diren opariak dira onenak”

Ezkontzak, ospakizunak, sorpresak... antolatzen laguntzeko, D'Ilusiones enpresa sortu du Mireia Elkoroiribek

Opari bereziak eta sorpresak asko gustatzen zaizkio Mireia Elkoroiriberi. Gertukoentzat zein beharreko kontuengatik, hainbatekintza eta opari egin izan ditu, eta orain bere afizioa D'Ilusiones enpresaren bidez eskaintzen hasi da. Abenduan emakume ekintzaileen mahai-inguru batean parte hartu du Madrilan.

Antolatzaile lanak gustuko dituzu, beraz. ETSko komunikazio sailean hainbat urte daroadaz lanean, eta ekintza asko antolatu behar izan ditut. Nire izaeragatik, gainera, nire familiarentzat eta lagunentzat bidaiak, ekintzak, sorpresak, opari bereziak... egin izan ditut. Lagunek animatu ninduten, eta Interneten begira hasi eta ekimen interesgarri bat ikusi nuen, norberak bere webgunea sortzekoa. *Conecta tu negocio* izeneko ekimena da, eta enpresa txikiei bideratuta dago. Hasi nintzen begiratzen, eta gustatu egin zitzaidan.

“Beti gustatu izan zait ingurukoei sorpresak eta opari bereziak egitea”

Aurretik lan txikiak egin dituzu...

Adibidez, Bocado taldea Gipuzkoan catering arloan indar handia daukan taldea da, eta bertako neska bat ezagutzen dut. Haren bitartez, Bizkaian ezkontzak-eta prestatzen zituztenean dekorazioan laguntzeko deitzen zidaten, eta hara joaten nintzen. Aukera ikusi nuen hobby legez egiten nuena ofizializatzeko.

Irailan hasizinen d'Ilusiones-egaz. Zelan joatzu?

Oso ondo. Gaitzena dena antolatzea izan da, beste lan bat eta familia edukita; ume txiki bi dauzkat. Ilusioz eta trankil hartuta, dena egin daiteke. Orain buru-belarri nabil ezkontza bategaz. Denetik egiten utzi didate, askatasunez, eta oso pozik nago.

Ezkontzatik ezkontzara alde egongo da...

Batzuek gauza intimoa eta jende gutxikoa gura dute, eta beste batzuek gauza bereziak gura dituzte; desberdinak, sorpresak... Irudimen aldetik joko handia egon daiteke. Ezkontza xumea gura baduzu, ez daukazu zertan horrenbeste burukomin hartu, baina zer edo zer berezia egin gura baduzu, gauza asko dira, eta batzuk bururatu ere ez zaizkizu egiten.



“Lana, familia eta zaletasunen arteko oreka lortzeko, garrantzitsuena prest egotea eta gure buruagaz lasai sentitzea da”

Ezkontzak prestatzerakoan denbora faltagatik jotzen dute zugana?

Bi gauza daude. Alde batetik geroago eta denbora gutxiago daukagula. Bikoteko bi kideek etxetik kanpora lan egiten dute orain, ia beti. Gero, nondik hasi ere ez da jakiten askotan, eta hornitzaileak ezagutzen dituen profesional batengana joatea aukera ona izan daiteke orduan.

Aholkuak ematetik dena antolatzerainoko beharra da zurea.

Hiru pakete eskaintzen ditut. Bate-tik, aholkularitza dago; gonbidapenak egiteko edo jatetxea, musika edo oparitxoak aukeratzeko gomen-dioak ematea... horrelako gauzak.

Bigarren eskaintzan aholkularitza eta koordinazioa sartzen dira; aholkuak emateaz gainera, gauzak lotu, gastuak kontrolatu eta ezkontza eguneraino guztiaz arduratzea. Hirugarren aukera ezkontza egunean bertan ere dena koordinatzea izango litzateke; batzuk lasaiago egoten dira azkeneko momentura arte han bazaude.

Ezkontzez gainera, bestelako ekitaldiak ere prestatzen dituzu...

Bai, gehienbat ezkontzak eta urteurrenak antolatzen ditut, baina beste edozein ekitaldi berezi antolatzeko beti prest egoten naiz. Ustekabeko bidaiak eta opari pertsonalizatuak

Mireia Elkoroiribe •

- Abadiñarra
- D'Ilusiones enpresa sortu du, ekintza bereziak eta opariak egiten laguntzeko

“Enpresa arloan hasteko emakumeok trabak jartzen dizkiogu gure buruari”

ere egiten ditut. Jende askok bikotekideari sorpresa eman gura izaten dio, baina batzuetan ez da izaten erraza sorpresa hori zelan gauzatu jakitea. Normalean ez da behar izaten diru kopuru handirik bikotekideari ustekabeko eder bat prestatzeko; ilusioz eta sentimenduz prestatzen diren opariak dira onenak.

Madrilen egon zara Webdate Conectad@ ekitaldian, emakume ekintzaileen mahai-inguru batean.

Oso esperientzia interesgarria izan da; 600 emakume enpresari baino gehiago batu ginen. Mahai-inguruan gure esperientzien berri eman genuen, eta email pilo bat bidali didate eurek euren proiektuagaz hasteko nire testigantza baliagarria dela esanez edo galderak eginez.

Emakumeek bultzada berezia behar dute enpresa munduan hasteko?

Ez dut uste emakumeok traba gehiago dugunik, baina batzuetan guk geuk jartzen dizkiogu mugak geure buruari. Emakumeok ardua handiko karguak betetzen ditugunean, gure buruarekin borroka handia izaten dugu, etxetik kanpo pasatzen dugun denbora luzeagatik. Lehenengo pausoa norbera prest eta buruagaz lasai egotea da, eta ondoren oreka topatzea gurea familiaren, lanaren eta zaletasunen artean.

Ingurukoen babes premiazkoa izango da.

Oso garrantzitsua da. Argi daukat nire familiaren babes barik ezingo nukeela horrelakorik egin. Beraiei esker nabil nire ilusio hau aurrera ateratzen; bestela, ezinezkoa izango litzateke niretzat. Familia eta lagunaren babesarekin eta ilusio handiarekin dena egin daitekeela pentsatzen dut. ■ A.Ugalde

@anbotokultura

KULTURA[>]

MUSIKA > ELKARRIZKETA

“Proiektu oso intimoa izan da, etxekeekin legez grabatutakoa”

lazko apirilean kaleratu zuen lagunek inguratuta osaturiko *Toubkal* diskoa Iban Gorriti durangarrak; inguruko artean banatu du azkeneko hileetan diskoa, opari legez. lazko urte amaieratik, baina, Durango Hitz eta Artea liburudendetan eta Kepa Aginakoren argazkidendan edonorentzat eskuragai dago lana, 5 euroan



Oso proiektu intimoa baina, aldi berean, hainbat jende batzen duena da diskoa, ezta?

Oso hurreko lagunak dira parte hartu duten guztiak: 1988tik hona, musikaren inguruan daramadan denboran ezagutu ditudanak. Kantak gitarragaz grabatuta neuzkan, eta lagunei deitzen hasi nintzen,

kolaboratu zezaten proposatuz. Bakoitzak bere ikutua gehitu du bateriagaz, koroekin, biolinagaz, pianoagaz... Beti esan izan didate jende gehiegi batzen dudala nire proiektuetara, errazagoa dela guztia lau lagunekin egitea. Lagun artean sortzen den giro hori dut nik, baina, gustukoan.

“Martxoak 31 taldean alboratu genuen ‘Days of van’ kanta berreskuratu dut diskorako”

Noiz osatutako kantak biltzen dira diskoan?

1993an sortutakoak zein orain egindakoak bildu ditugu diskoan. Martxoak 31 taldean alboratu genuen kanta bat berreskuratu dut, esaterako, diskorako: hain justu jendeari gehien gustatu zaiion *Days of van*, diskoko lehenengoa.

Diskoak mezu oso baikorra helarazten duela entzun diogu jendeari. Horrela da?

Bai, horrela ikusi du jende gehienak. Aiur semea jaio zen bizitzako sasoi berri baten hasieran sortutakoa da diskoa, eta neska-laguna haurdun zegoela, denbora librean egin genuen grabazioa. Oso gauza berezia izan da: oso intimoa. Musikariekin baino gehiago, familiagaz sortutakoa balitz legez. Diskoa semeari dedikatzea izan da ideia, eta jendeari oparitu egin dizkiogu ale gehienak.

Diskoaren ‘Toubkal’ izena, bidaia batetik ekarritakoa da...

Alpinogaz Afrika iparraldeko altuena den Toubkal mendia igo nuen 2000. urteko bidaia batean, eta hurrengo urtean neska-laguna eta biok joan ginen. Handik, orain bederatzi urte ekarri genituen semearen eta diskoaren izena.

Ahotsak, koroak, bereziki landu dituzue disko honetan?



Bai, diskoaren ekoizle artistikoa izan den Elorrioko Mikel Quesadak eta Izaskun Camiñasek egin dituzte koroak, eta eurei esker da emaitza hain berezia.

Diskoko kantak zuzenean eskaintzeko asmorik?

Ez, printzipioz ez. Bigarren disko bat egiteko gogoagaz nabil orain. Dena den, zuzenean eskaintzeko aukera hor egongo da gero ere.

Ibili zaren taldeen musikagaz alderatuta, geldoagoa da hau.

Bai. Harritu egin da jendea horregaz. Esango nuke estresak eraman nauela musika geldoagora: lanez lepo ibili naizenean lasaigarri moduan erabili dut azken urteetan musika. Horrek, dena dela, ez du kentzen hurrengo diskoa animatua izatea. ■ I. Esteban



Bidaia, ilusio eta lagun artean sortutako “musika furgoneteroa”

Bidaiei erreferentzia egiten dieten kantak dira diskokoak: furgonetan egindako bidaiei buruzkoak. Disko formatua hartu duen eguneroko bat, “bitakora” da Iban Gorritiren berbetan, Lekeitioko zinema lehiaketan irabazitako sariagaz finantzatutako *Toubkal*.

Denison Witner, Damien Jurado, Pedro The Lion eta Bob Marley dira Gorritiren kuttunak. Azkenaldian ingelesez kantatutako musika entzuten duela gehien dio, eta “rockagaz ondoen uztartzen den sonoritatea ingelesarena” dela uste duelako hautatu duela hizkuntza hori.

Durangaldeko musika sorkuntzari dago-kionez, “oso eszena aberatsa” dagoela dio. “Asko pozten nau alor desberdinetan diharduten musikariek elkar errespetatzen dutela ikusteak: hori falta genuen 1980 bueltan”.

Hain zuzen, talde eta estiloen arteko harreman horiek sendotzen lagundu dutelako, “Gorka Biziush eta Dummy pertsona klabak” direla azpimarratu gura izan du.

Bere diskoari “musika furgoneteroa” etiketa ipiniko liokeela aipatu digu kultur kazetaritzan lan egiten duen Gorritik.

Aste Santuan familiagaz Goi Atlasera egingo duen bidaia eta bigarren diskoa darabiltza buruan orain: “Beharrezana daukat bidaiatu eta sortzeko, egun guztiak berdina izateak zahartu egiten gaituela sentitzen dudalako, eta sorkuntzak ilusionatu eta eraberritu egiten nauelako”.

Diskoa bera ere asko ari da bidaiatzen: Biziush lagunak Esloveniatiatik bidali zuen lehenengoa, eta aldamenekoak lako beste 30 argazki jaso ditu Gorritiren postontziak.



LITERATURA > SARIAK ETA LEHIAKETA

Iurretako eta Elorrioko liburutegiak saritu dituzte

Espainiako Kultura Sailak eskaini ditu Maria Moliner lehiaketako sariak

Besteak beste, euskal literaturaren gela, haur-literatura lehiaketa, ipuin kontalariak, komiki tailerra eta emakumeenganako indarkeriaren kontrako jardunaldiak barne hartu dituen proiektuagaz hartu du Elorrioko liburutegiak Espainiako Kultura Ministerioak irakurketa sustatzeko helburuz antolatzen duen Maria Moliner lehiaketan parte, eta, bigarren urtez jarraian, saritu egin dute; 200 liburuko sorta jaso du sari moduan.

Zazpigarren biderrez jaso du, Maria Moliner lehiaketa honetan, bestalde, saria, Iurretako Herri Bibliotekak. Haur eta gazteentzako 200 liburu irabazi ditu Iurretak ere, eta aipamen berezia lortu du, "egitasmoak erakutsitako kalitateagatik".

Berrehun liburuko sorta jaso dute liburutegi biek Maria Moliner lehiaketan saritzat

Bigarren urtez saritu dute Elorriokoa, eta zazpigarrenez Iurretako Herri Biblioteka

Urtean zehar antolatzen dituen jardueren berri eman du sariketara aurkezteko proiektuan Iurretako liburutegiak ere: "ikas-tetxeekin egindako bisita gidatuak, ume eta gazteekin egindako tailerrak, munduko emakumeen literatur tailerra, hainbat herrialdeetako kultura ezagutzeko liburuen topaleku kanpaina, etab."

Ohar baten bitartez, eskerrak eman dizkio Herri Bibliotekak Iurretako Udalari, "bere uste ona eta laguntza ekonomikoa eskani izanagatik". Liburutegiko ardura-dunek egitasmoan parte hartzen duten herritarrei ere esker ona adierazi gura izan diete, eta ildo beretik lanean jarraitzeko asmoa agertu dute.

Literatur lehiaketa hasita

Saria jaso eta eguneroko lanagaz dihardute Iurretako Herri Bibliotekak. Urte hasierarako, besteak beste, IX. Literatur Lehiaketa antolatu dute. Ipuinen zein bertso idatzi sailean, urtarrilaren 27ra arte aurkeztu ahal izango dituzte parte-hartzaileek euren lanak liburutegian. ■ A.U/I.E.

GEURE DURANGALDEA



Jose Martin Urrutia, "Txotxe" Irakaslea

Joan zaigu

Joan zaigu 2011. Ez dakit zuentzat nolakoa izan den. Niretzat oparoa eta era berean oso gogorra izan dela aitortu behar dizuet. Oparoa, ikuskizun ezberdinen, diseinu zein antolaketan murgilduta ibili naizelako. Gogorra, sasoi, garaiz kanpo, bihotzeko lagun bat agurtu behar izan dudalako.

Kultur eragile zein bidaiari nekazina naizenez (kar, kar, kar...) aurrera begiraten jarraitzen dut, zuek bezala, eta oraindik marraztu gabeko etorkizunari begira jartzen naiz, eta ahaztu egiten zait zer begiraten ari naizen ere. Hala-kotean, bakardadearen ahotsak zera galdetzen dit: "Norantz zoaz?"; "Norantz goaz?". Eta nik ez dakidala erantzuten diot. Gutxira, nire nahasmenari forma eman nahian zera erantzuten diot: Euskal Herrian sortu den eszenatoki politiko berriak itzaropentsu sentitzera naramala, baina era berean errealitate ekonomiko, sozial eta kulturalak dena beltzez margotzen duela. Joder, nire barrenek egiten dizkidaten galderekin!

Noraezean, galduta nago, eta errealitatea den leihotik begiraten dut, ea erantzunik topatzen dudana.

Erantzun ezaren aurrean, bertsoan zein musikan murgiltzen naiz, nire arima edo barrenei erantzun nahian. Garbitzeko nagia ematen diguten apaletan liburu zein CD edo LPetan bidea aurkitzen saiatzen naiz, eta horretan nagoela nire lagun nekazinak, irratiak, Atahualpa Yupanquiren bertso zahar batzuk berreskuratzen dizkit. Panpa mugaezinezko bardo ezkeriarrak zera esaten dit, *El cielo está sobre mi* abestian: "...busca el cielo en ti mismo, que allá lo vas a encontrar, pero no es fácil hallarlo pues hay mucho que luchar...".

Bertsoak akuilukada bat bezala sartzen dira nire burmuin eta barrenetan, eta nahiz eta bidea argi ikusi ez, borrokan jarraitzeko aupada bat sentitzen dut, agian hori delako argi ikusten dudana bide bakarra.

ANTZERKIA > EMANALDIA

Shakespeare-en hainbat lan taulara Mofa e Befaf galiziarren eskutik, umorez

Urtarrilaren 15ean Durangoko San Agustinen eskainiko dute, 19:00etan, *Shakespeare para ignorantes* obra

Durango, San Agustin kultur gunea, aukuratu du Mofa e Befaf antzerki taldeak Quico Cadavalek zuzentzen duen *Shakespeare para ignorantes* antzezlanaren 2012ko birari hasiera emateko.

Domekan Durangon eskainiko duten antzezlanaren izenburuko 'Shakespeare' eta 'ignorantzia' berben definizioak eskaintzen dituzte Mofa e Befaf taldeko galiziarrek obraren aurkezpen orrian: "XVII. mendeko arrakasta handiko antzerki sortzaile eta ekoizlea" da euren berbetan Shakespeare, eta "zerbait zehatz edo orokorraren inguruko zientzia edo notizia falta" ignorantzia.

Hain zuzen ere, azalpenekin, Shakespeare buruzko irakasle baten berbaldiagaz abiatzen da antzerki obra: autore ingelesaren obrari buruzko konferentzia horretan, langabezia dauden aktore biren laguntza izango du irakaslea. Publiko gehienak ezezagun dituen Shakespearek sortutako eszenak oholtzaratuko dituzte, intimitate eta ekintza lotsagarriak azaleratuz.

MacBeth, *Richard II*, *Lear Erregea*, *Hamlet*, *Otelo*, *Romeo eta Julieta* eta Shakespeareren beste hainbat lanetako materialagaz osatu du Mofa e Befaf talde galiziarrek antzerki obra hau.



Shakespeare-ren lanari buruzko irakasle baten berbaldiak abiatzen du antzezlan

Ganso & Cia-ren ikastaroa

Apirilean eskainiko ditu antzerkigintzagaz loturiko ikastaro bi Ganso & Cia taldeak: clown-ari buruz jardungo dute azken urteetan ere ikastaroa zuzendu duen Pep Vilarekin, eta *Gorputz komikoa* ikastaroa eskainiko du Pablo Ibarluzeak. Izen-ematea eta informazio gehiago: info@ganso.info. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

URTARRILAK 14 21:30ean
SERMOND'S + KILAUEA
+ RATZINGER + MUTURBELTZ
+ MOTOCICLON. Sarrera: 8-10euro.

URTARRILAK 21 19:00etan
AIKO ERROMERIA
ERROMERIA. Sarrera doan.

URTARRILAK 26 20:00etan
KANTULAGUN
EUSKAL KANTAK ABESTEN
Gonbidatua: Josu Zabala eta Batbihirulau
Urte osoko izen ematea: 15euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

SHAKESPEARE PARA IGNORANTES
Excéntricas Producciones

Urtarrilak 15 • 19:00

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Hitz liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

MUSIKA > EMANALDIA

'Amaiera hasieran dator' aurkezteko biraren azkenekoa

lazko urte hasieran kaleratu zuen diskoa aurkezteko eskainitako bira amaitutzat emateko lagunek inguratuta eskainiko dute Sermond's taldekoek kontzertua, bihar, Plateruenean

Urtebetez *Amaiera hasieran dator* diskoan jasotako kantak Euskal Herriko oholtzetan eskaintzen jardun eta gero, urtarrilaren 14rako Durangoko Plateruenean antolatu duten kontzertuagaz emango du bigarren diskoaren bira amaitutzat Durangaldeko musikariek osatzen duten Sermond's taldeak. Beste lau talde gonbidatu dituzte emanaldi horretarako.

Durangaldeko lagunak Kilauea taldeak, Rat-zinger bilbotarrek, lehen Sixty Sexers taldean jardundako Donostia eta Berako musikariak batzen dituen Muturbeltz taldeak eta Madrilgo Motociclon-ek jardungo dute, urtarrilaren 14an, 21:30ean hasita, Durangoko Plateruenean.

Taldeak urtebetez burutu duen biraren azkeneko kontzertua delako, baina Sermond's bos-

Bira honen eta Gorka gitarristaren azkeneko kontzertua izango da

Lau talde gonbidatu dituzte Platerueneko lagun arteko jaira

Kontzertu honen ondoren kanta berriak sortzeari ekingo dio Sermond's-ek

kotean gitarrista jardun duen Gorka "Biziush"-en azkeneko kontzertua delako ere berezia izango da biharko kontzertua. Aurreratu digutenez, bertsio berriak eta taldea "berpiztu" zeneko kantak eskainiko dituzte, besteak beste.

Kontzertu horren ondoren, lokalean sartu eta hurrengo diskoa prestatzen hasteko asmoa dute, azaldu digutenez, Sermond's taldekoek. "*Amaiera hasieran dator* baino disko hobea, landua-goa egitea da erronka" diote.

Azken urte hauetan Euskal Herriko rockaren barruan bere


lekua egitea lortu du Sermond's taldeak, *Amaiera hasieran dator* diskoari eta han eta hemen eskaini dituzten kontzertuei esker. Disko horrek "harrera oso ona" izan duela diote taldekideek, "musika munduan ari den jendearen artean, batez ere". Musikariren berbetan "oso urte polita" izan dena borobilduko dute bihar. ■ I.E.



PINTURA > ERAKUSKETA

Alberto Palomera artistaren margolanen bilduma Museoan

Durangoko Arte eta Historia Museoan izango dira lanok ikusgai, urtarrilaren 29ra arte



Alberto Palomera artista barakaldarraren 33 margolan biltzen dituen erakusketa da Durangoko Arte eta Historia Museoan urtea zabaltzeko ekarri dutena: urtarrilaren 5ean zabaldu zuten erakusketa, eta 2ra arte izango da bisitariarentzat zabalik.

Argazkigintza eta eskulturgintza ere jorratzen dituen arren, pintura lanekin osatu du ahotan darabilgun bilduma, orain urte batzuk ere museo horretan bere lanak erakutsi zituen Palomerak.

Partiturak, egunkari edo argazki zatiak eta testu laburrak koadroetan

Musika partiturak, egunkari edo argazki zatiak, soka zatiak, eskuz idatzitako testu laburrak eta margolanak collage bereziak osatuz batzen ditu Alberto Palomerak erakusketa horretarako ekarri dituen koadroetan.

Mecánica de la utopía, Pasión edo *Ecuaciones de una maestra* izeneko lanak daude, esaterako, EHUko Arde Ederren fakultatean iraskale jardundakoa den Alberto Palomeraren erakusketan.

Inguratzen duen guztia, "horma zartatu bat, bizikleta baten eskuleku herdoildua, pneumatiko bat... gizakiaren izaera aztertzeko laborategiko material" bilakatzen du Alberto Palomerak: gizon-emakumeon izaera aztertu gura du margotuz. ■ I.E.

MUSIKA > DISKOA


Diskoa internetetik deskargatzeko aukeran ipini du Ghetto taldeak

Musika taldearen 'www.myspace.com/ghettotarrak' webgunean dago zortzi kantako diskoa jaisteko lotura

Urtarrilaren 3an Bergarako Gaztetxean eskaini zuen Durangaldeko Ghetto boskoteak kontzertua, eta bertan agurtu zuten taldeko bateria-jotzailea. Azaldu dutenez, 2007an Mendiola, Elorrio, Durango, Bergara eta Atxondoko partaide guztiek hartuko dute deskantsurako denboraldi bat.

Aurretik, baina, rocka, folka eta funka uztartzen dituen diskoa internet bidez deskargatzeko aukera eskaini dute: taldearen www.myspace.com/ghettotarrak webgunean dago diskoa deskargatzeko lotura. Zortzi kanta biltzen ditu 2011n grabatu zuten diskoak, eta taldeak jorratzen duen estilo aniztasunaren isla da.





Berrizko Udalak jai zorientsuak opa deutsuez

www.berriz.org



J A I E N E G I T A R A U A

Urtarrilak 13 barikua

18:00 Zuzarazu Antzerki Taldearen "Familian" Ikuskizuna Kultur Etxean
 19:30 "Sagardotegi Ibiltaria" eta Erromeria Trikitilariekin Olakueta Plazan. Ondoren Odoloste jana Olakueta Plazan
 20:00 Olakuetarrek ibilalditxo egin ostean, Donien Atxa altzatuko dute Olakuetako plazan.
 21:00 Kontzertua Zuzarazu Taldearekin

Urtarrilak 14 zapatua

10:00/14:00 Berrizko Ziklokros Sari Nagusia Berrizburun
 17:30 Korri, Xalto ta Brinko "Entresaka" Olakueta Plazan
 18:30 San Antonio VI.Pilota Txapelketa-Finalak
 19:30-21:30/00:30-02:30 Erromeria Lisker Taldearekin

Urtarrilak 15 domeka

10:00 Mendi Bizikleta Martxa-Irteera Kultur Etxe aurrean (Geltoki kalea).Izena ematea doan.
 11:00 Trikitilarien Animazioa
 11:00 Artisau Txokoa frontoian
 12:00 Bizkaiko Bildots Dastaketa Olakueta Plazan
 13:00 Iremiñe Dantza Taldearen Ekitaldia Olakueta Plazan
 19:00 Txintxaun Kolektiboaren "The Full Monty" Ikuskizuna Kultur Etxean. Sarrera 5 euro

Urtarrilak 17 martitzena (San Antonio Eguna)

12:00 Antonio Deunaren Baselizan Meza
 16:30-18:30 Barrakak Doan Izango dira
 19:00 Askaria eta Nekazal Olinpiada Frontoian.Sarrera euro 1.
 Ikuskizuna, txorizo ogitartekoa eta edaria.

Urtarrilak 23 astelehena

20:30 Olakuetarren Afaria

Urtarrilaren 20tik 24ra

LVI. Antonio Deuna sari nagusia.


**Jaietan be euskaraz
 eta berdintasunean!
 erasorik ez!**



Juliantxu
 Jatetxea
 ☎ 94 682 40 77 - 48240 Berriz (Bizkaia)



JON HARATEGIA
 HARATEGIA - URDAITEGIA
 Iturrizar, 9 - BERRIZ - 676 01 91 05 - 94 622 52 08



SAN ANTONIO, 1.
 48.240 BERRIZ BIZKAIA
 TEL: 94.682.62.46
pedrojuan
 JATETXEA

Juan Ramon Azkonizaga
 Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52

Banatzailerak:



NESTOR ALDEKOA
 HARATEGIA - URDAITEGIA

Espezialitateak: Behi Okela, Bertoko Txahala, Bildotsa, Txarrikiak eta Odolosteak



Iturriza kalea, 10 Tel.: 94 682 43 20 - BERRIZ

Iturriza kalea, 9
 Tel.: 94 682 40 09
 48240 BERRIZ
 Bizkaia

fonda
TABERNA



DIA 

Zengotitabengoa • BERRIZ
 ☎ 946 824 215

Harategi-Urdaitegi zerbitzua ere

TABERNA - JATETXEA
TOKI-ONA

jai zoriontsuak euskal sukaldea:
 opā deutsuež!

MENUAK
 KARTA ZERBITZUA

Olakueta Plaza
 48240 BERRIZ (Bizkaia)
 Tel. 94 682 42 02
 94 682 41 27

Harategia - Urdaitegia

JAYO

Iturriza, 21
 94 682 44 64
 BERRIZ

Liburudenda
Amalux
 aldizkariak papera opariak

Iturriza, 29, Berriz Tel.: 94 682 62 48

ETXEBARRIA
 ESTANKOA

Tabakoa
 Papera
 Opariak
 Fotokopiak

Iturriza, 14 Tel./Faxa: 94 682 79 58 BERRIZ

AZKONDO
 ELEKTROTRESNAK

Iturriza, 8
 Tel.: 94 682 42 93
 48240 BERRIZ

ORLEGI
 TABERNA

Tel.: 94 682 48 28 Iturriza, 5 BERRIZ

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Desobedientzia zibila berriro ere delitu

Aste honetan, Urbinan atxilotutako ena aurkako epaia atara dute. Orain dela hiru urte AHTaren aurkako manifestazio jendetsuan atxilotutakoei kartzela zigorrak ezarri dizkiete, baina zorionez batek ere ez du zigor hori bete behar. Epaituetako bat durangarra da, eta 7 hilabeteko kartzela eta 120 euroko isuna jarri dizkio epaileak.

Egun hartan Urbinan bortitz jokatu zuten bakarrak polizia autonomikoak izan ziren, eta eurek zigortu beharko lituzkete manifestazio baketsu bati modu basatian erantzuteagatik. Hala ere, protestan parte hartu zutenen aurka egin dute epaileek betiko moduan, eta berriro ere, desobedientzia zibila delitu bihurtu dute.

Larriak ez balira barregarriak izango liriteke orain dela urte batzuk Ibarretxek eta Lopez Gereñuk hainbatetan bota zituztenak, esanez modu baketsuan izanez gero zilegi zela AHTren aurka egitea. Gezurra gezurraren gainean; lehen eta orain. EAJk ahalegin berezia egin zuen hasieratik AHTren aurkako oposizioa isilarazteko eta kriminalizatzeko, eta horretarako, bere esku zeuden bitartekoak erabili zituen: polizia eta ETB. Gaur egun ere, PSEk beste horrenbeste egiten du.

Aurka dagoen jendea zigortzen duten bitartean, euren negozioarekin jarraitzen dute. EAEko aurtengo aurrekontuetan, arlo gehienetan murrizketak egin dituzten arren, AHTra-ko dirua % 30 puztu dute, beharizan sozialen kaltetan. Nork uler dezake zerbitzu sozialetan murrizketak egotea, eta erabilgarria izango ez den proiektu batean diru gehiago gastatzea?

Honen guztiaren aurrean gure erantzuna ezin daiteke beste bat izan. Argudioz leporaino armatuta gaude ozen esateko proiektu txikitzaile hau ez dela herritarren mesederako eta elite pribilegiatu bati erantzuten diola. Beraz, gobernua- ren jarrera oldarkorak gogotsu lan egiteko eta borrokan jarraitze- ko indarra ematea besterik ez du lortuko.

Durangoko AHT Gelditu! Elkarlana

Klik batean @



Pasabidearen egoera

Urteak daramatzagu 634 errepide nagusiko lurpeko pasabidearen egoera negargarria salatzen. Abenduaren 18an eguneroko ur putzu txikiak lakua zirudien.

Autobusaren geltokira, Txarolara edo bertako mezkitara datozen ehunka lagunek errepidea gainetik zeharkatzea beste erremediorik ez daukate, horrek dakarren arriskuarekin. Nora begira daude herriko agintariak? Autobidearen hirugarren erreia laister zabalduko dute, baina gure auzoan, Gerediagan, badago bai oraindik zer konpondu.

Hamabi Harri auzo elkarte

Sei hankako mahaia



Idoia Agorria
PSE-EE

Durangoren motorra

Diotenez, 2012. urtea aurrekoa baino okerragoa izango da, eta Durangoko biztanleek, saltzaileek eta ostalariak beren kezken berri eman digute.

Kezka horiek zerga-ordenantzetara eramane ditugu, eta, horri esker, Durangon dauden langabeek euro bat besterik ez dute ordaindu beharko -gutxi gorabehera- zaborren gaineko zerga dela-eta.

Horrez gain, neurriak sartu ditugu herriko saltokiei eta ostalaritzari laguntza emateko, Durangoren motor ekonomikoa baita horiek. Hala, %100eko hobariak izango dituzte gainbalioen gaineko zergan, zuzeneko oinordetza- ren bidez eskualdatzean eta titu- lartasuna aldatzeko lizentzietan. Horrela, gaur egun dauden salto- ki familiarrek aurrera egin ahal izango dute.

Bestalde, saltokietan eta ostalaritzan %90eko hobaria izango dute eraberritze-lanak egiteko, esku artean ditugun lan-ildoei jarraiki. Lan-ildo horiek Durango- ko Merkataritza Biziberritzeko Plan Berezia jasota daude. Izan ere, gure ustez, Udalak erraztasun- ak eta pizgarriak eman behar ditu saltokiei eraberritzeko lanak egin daitezken.

Neurriak jarri ditugu ostalari eta saltokiei laguntzeko, herriko motorra baitira

Gainera, %90eko hobaria sustatu eta bultzatu dugu zaborren gaineko tasan, papera eta kartoia jasotzeko zerbitzuarekin bat egin- da dauden denda eta taberna guz- tiantzat. Era horretan, konpromi- so garrantzitsua lortu nahi dugu, saltokiei egiten duten birzikla- tzearen eta iraunkortasunaren arloan. Gainerako saltoki txiki- egi dagokionez, tasa izoztu da.

Horiek dira, besteak beste, landu eta ezarri ditugun neurri- tako batzuk, egoera nolabait arin- du ahal izateko eta Durangoren motorra geldiarazi ez dadin lor- tze-ko.

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



durangaldeko
astekaria

2012ko urtarrilaren 13a
10. urtea - 442 zk.

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazio burua: Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onandia, Amaia Ugalde.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Argazkilariak: Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

@anbotokirola

KIROLAK >

“Sokatira besoetako indarra zela uste nuen, baina teknikak itzelezko garrantzia dauka”



Lauko txapelketan 320 kilora arteko finala lehiatu zuen; hala ere, oraindino hobetzeko asko duela dio.

Hainbat urtean errugbian aritu ondoren, gaur egun arrauna (Zarautzen) eta sokatira (Abadiñon) partekatzen ditu Igor Isasi eibartarrak. Sokatiran aurten hasi da, eta gustura dabilela dio; taldean aurkitu duen giro ona azpimarratu gura izan du.

Zure lehenengo pausoak errugbian eman zenituen.

Eibarko taldean ibili nintzen, 13 urte nituela. Seniorretara arte Euskadiko eta Espainiako selekzioekin hainbat bider jokatu nuen, eta Donibane Lohizunen jokatzeko aukera eskaini zidaten; Aratz Gallastegi eta Oskar Astarloa ere han zehar zebiltzan, eta animatu egin nintzen. Hiru urte egin nituen han, eta oso esperientzia aberasgarria izan zen. Ondoren Getxon eta Ordizian jokatu nuen. Ordiziakoekin mailaz igo eta lau urte egin nituen.

Zergatik utzi zenuen errugbia?

Lagunarteko partida batean genbiltzala matrailezurra apurtu nuen plakaketa baten ondoren. Zelan diren kontuak; urte osoan ez nuen lesiorik izan, eta lagun artean kolpe tonto bategaz matrailezurra apurtu! Horren ondoren, errugbia uztea erabaki nuen.

Errugbia utzi eta arraunean hasi zinen.

27 urteaz neure burua fisikoki indartsu ikusten nuen. Gainera,

“Arrauna uztea hausnartzen nabil; gogorra da dena batera eroatea”

“Erresistentzia eta sufritzeko ahalmena behar dira arraunean eta sokatiran”

lehiatzea beti gustatu izan zait. Sasoi hartan, Luis Mari Zulaika nire irakaslea zen, eta Zarauzko Arraun Elkartearen probatzea proposatu zidan. Gustatu eta laugarren denboraldia hasiko dut aurten. Hasieran gogorra egin zitzaidan; urteko hamar hilabetetan, astean sei entrenamendu egiten ditugu. Denboraldia amaitzen denean ez jarraitzekotan egoten naiz beti, baina urria gerturatzen doan heinean, itsasora joateko gogoaz pizten zait.

Arrauna utzi ez, eta sokatiran hasi zara...

Arrauna eta sokatira beti izan ditut gustuko. Abadiño taldeko tiralari batzuk ezagutzen nituen, eta probatzeko esan zidaten. Denek eskuzabalik hartu ninduten; taldean giro ona ikusi eta jarraitzea erabaki nuen.

Gogorra da aldi berean arraunean eta sokatiran jardutea?

Gaitza da denera heltzea; goizetan irakasle, eta ondoren arraunean edo sokatiran. Behintzat, fisikoki ez dut arazorik; errugbian

kolpeak hartzen dira, baina arraunean eta sokatiran, kirol gogorak izanagatik, kolpeetatik libre zaude, eta ez da gutxi.

Orain arte zelako sentazioak utzi dizkizu sokatirak?

Oso gustura nago orain arteko esperientziagaz, eta urte gehiagotan jarraitzeko animatuta nago. Arrauna uztea hausnartzen nabil, dena batera eroatea oso gogorra delako.

“Matrailezurra apurtu ondoren erabaki nuen errugbia uztea”

Sokatirari eta arraunari antzekotasunik ikusten diezu?

Biek erresistentzia eta sufritzeko gaitasuna eskatzen dute. Sokatira fisikoki gogorra da, denbora gutxian leherrarazi egiten zaituelako; oso intentsoa da. Arraunean, proba bakoitzean 20 bat minutuan jardun beharra dago, eta iraupena ere eskatzen du.

Arraunetako teknikak balio izan dizu sokatiran?

Bai, bietan tiraka zabilta, eta hankak luzatuta daukazuz; alde

IGOR ISASI

Adina: 30 urte

Jaioterria: Eibar

Garaiera eta pisua: 1.90 metro eta 83 kilo

Ogibidea: Irakaslea

Kirol ibilbidea:

Errugbia: 1994-2007. Eibar, Donibane Lohizune, Getxo eta Ordizia taldeetan jokatu zuen.

Arrauna: 2007tik hona Zarauzko Arraun Elkartearen dihardu.

Sokatira: Abadiñoko Sokatira Taldera batu da aurten.

horretatik balio izan dit. Dena dela, sokatiran ondo eta indartsu tiratzeko garrantzitsuena beso onak izatea zela uste nuen, baina ez da horrela. Teknikak nik uste baino garrantzia handiagoa du. Postura egokian jardutea garrantzitsua da; hankek, gerriak, gorputzaren inklinazioak... denak eragiten du emaitzan. Hasieran asko kostatu zitzaidan; orain ere bai, baina hobetzen nabil.

Praktikatu dituzun hiruretatik zein da zure ustez gogorrena?

Arrauna. Baina ez probengatik, urte osoan zehar eskatzen dizun dedikazio handiagatik baino. Eguraldia ere faktore bat da; euriagaz, hotzagaz eta itsaso mugituagaz arraunean egitea ez da batere samurra. Dena dela, hiru kirolak erakargarri egiten zaizkit. Gehien gustatzen zaidana errugbia da, duda barik. Arraunean itsasoaren magiak erakartzen nau, eta sokatiran taldeko giroak, besteak beste.

Sokatiran lehenengo pausoak emateko goma gaineko talderik onena aukeratu duzu.

Abadiñoko talde nagusia beste tiralari batzuek osatzen dute normalean. Niretzat irabaztea eguneroko Abadiñora etorri eta entrenatzea da. Gogoan dut lau txapelketan, 320 kilora arteko finalako taldean sartu ninduela Edu Mendizabal entrenatzaileak, nahiko hasiberrian. Ez genuen ezer irabazi, baina nik ederto pasatu nuen. Aurtengo otsailean munduko txapelketa dago Eskozian, eta hori ere motibagarria da. Koadrilako beste batek ere probatu dezan ahalegintzen nabil. Beharbada neguan fitxaketa berria izango dugu. ■ J.D.

> Bideoa: www.anbotokirola.org

Burumakur ibiltzeko denboraldirik egokiena

Kurutziaga eta Sasikoa B txarto dabilta, baina euskal ligari eusteko aukera handiak ditu Kurutziagak, mailako berezitasunak direla-eta



Sasikoa Bk joan zen astean lortu zituen denboraldiko lehenengo puntuak. Kepa Aginako

Aurtengo denboraldian behin baino gehiagotan aipatu dugu Sasikoa A eta Eloorrioko Buskantza ezinean dabiltzala hirugarren mailan; azken eta azken aurreko daude. Zoritxarrez, maila bat beherago, Kurutziaga Ikastola eta Sasikoa Bere ez daude ospakizunetarako: hauek ere sailkapeneko azken postu bietan daude, baina datu txarragoekin.

Kurutziagak puntu bakar bat batu barik amaitu dezake lehen itzulia, asteburuan Lagun Onak-en kontra galtzen badu. Sasikoa Bk joan zen asteburuan lortu zituen denboraldiko lehen puntuak, derbian Kurutziaga 9-4 menderatuta.

Dena dela, eskas ibiltzeko denboraldi aproposik badago, aurtengoa da. Izan ere, denbo-

Kurutziagak puntu barik amaitu dezake lehen itzulia, zapatuan

raldiari talde bat gutxiagogaz ekin zion euskal ligak, horrek jaitsierako postu bat kendu zuen; ondoren, Reformatux taldeak liga utzi egin zuen, bigarren eta azkeneko jaisiera postua ekidinez. Areto futboleko araudiari jarraituz, Kurutziagak maila galtzeko arrisku bakarra du: maila bi gorago jokatzen duen euskal talderen bat jaitea eta arrastreek eragitea. Beraz, bigarren B mailan azken laugarren dagoen Laskorain taldearen ibilerak hurretik jarraituko

dituzte aurrerantzean, seguru.

Sasikoa Bri, arrisku horrek ez eze beste batek ere eragiten dio, maila bat gorago A taldea jaitsiera postuan dago-eta.

Kurutziagak iazko bloke ia berbera mantentzen duenez, Rober Perez entrenatzaileari ere ez zaio erraza hain ibilera ahularen arrazoiak bilatzea: "Mentalitatez huts egiten dugula uste dut. Jokalariak konpromiso handia dute, baina galtzen hastean burua arinegi jaisten dugu".

Sasikoa Bren arazo nagusia da jokalaria askok ezin dutela sarritan entrenamenduetara joan, ikasketen azken urtean daudelako edo lanagatik. Horrek ez du irtenbiderik aurten; A taldeak mailari eustea litzateke albisterik onena. ■ J.D.

Webgune berria estreinatu du Kulturalak

Durango Kulturalak webgune eraberritua estreinatu du (www.culturaldurango.org). Klubeko zazpi taldeen emaitzak eta sailkapenak ez ezik partiden kronikak ipiniko dituzte. Webgunearen ezaugarrietako bat berehalakotasuna izango da, informazioa ahalik eta arinen eman ez. Edukiak euskaraz ere egongo direla jakinarazi dute, bestalde, klubeko kideek.

Webgunea ahalik zabalena izatea gura du Jose Luis Espiau Kulturalako presidentek: "Gurasoen zein bazkideen laguntzari edo ekarpenari atea zabaltzeko gura diogu; kronikak idatzi ditzakete, ideiak helarazi...". Horrez gainera, Facebook-en partidetako bideoak jarritzen jarraituko dute. ■ J.D.

Puntu bat Elorriorentzat 2. faseko estreinakoan



Galdu arren itxura ona eskaini zuen Elorriok. ElorriORT

Euskal ligako lehenengo fase-tik lider moduan sailkatu ondoren, bigarren faseari porrot batez ekin dio Elorri-Parra Taberna Rugby Taldeak. Etxean 10-12 galdu zuten Universitarioko Bilbao taldearen kontra.

Hala ere, zazpi puntu baino gutxiagoko aldeagaz galdu dutenez, puntu bat batu du Elorriok. Beste partidetan Getxo Artea eta Zaisa Irún taldeek irabazi zuten, eta eurak dira liderak Bilbogaz batera. ■ J.D.

Kepa Arroitauregi
•Pilota teknikaria



Beti arrazoitzen

Adituarentxokoa

Pilota munduan murgilduta gabiltzan bizkaitarrok askotan entzun behar izaten dogu, pilotari onak badaukaguzela baina izarririk ez, eta ia zer pasatzen den... Lehenagoko Hilario Azkarate, Jesús García Ariño edo Iñaki Gorostiza aitatzaren dira gehienbat handienei so eginez, denak bertokoak, gainera, Durangaldekoak.

Lehen afirmazioa egia bada ere —horrek lrujo bat, Aimar bat... edukitzea suposatzen badu—, ez da egia txikiagoa badirela pilotari onak, oso onak Durangaldean, lau haizetara dabilzenak. Sona handieneko jokamoldean eta aurrelari onen pare hor dogu Pablo Berasaluzek; agian pilotari 'oso' lez ez, baina errematatzaile gisa gutxi dira eta izan dira bere mailakoak. Bartzelonan izango da berriztarra datorren asteburuan, Albisurenekin, Olaizola II-Beroiz bikoteari aurre egiteko.

Eta oraindik nahiko arrotza bada ere askorentzat trinketea, bizkaitarrek, batez ere Durangaldekoek, atea ireki diote jokamoldeari, eta Iparraldeko profesional onenekin nahasian (Harizmendi, Bonebelche, Waltary... beste hainbaten artean) jokatu dituzte jadanik hainbat partidu bertako Rober Uriarte abadiñarrak edo Mikel Gonzalaz berriztarrek...

Izar izateko bidean? Izar handirik agian ez baina zerua ere izar txiki baina ugariz betea egoteak pozten baldin bagaitu, zergatik ez gagoz gustura gure pilotari 'errola'-ren maila ikusita?

Hirugarren puntua gura du Pablo Berasaluzek

Albisuk eta biek Arretxe II.a eta Beginoren kontra jokatuko dute gaur Larrainzarren

Binakako Pilota Txapelketari dagokion partida jokatuko dute gaur Berasaluzek VIII.ak eta Albisuk, Arretxe II.aren eta Beginoren kontra. Lehia 22:00etan hasiko da Nafarroako Larrainzar herriko pilotale-

kuan. Orain arte jokatutako hiru partidetatik bi irabazi dituzte Berasaluzek eta Albisuk, eta sailkapeneko hirugarren tokian daude Olaizola II-Beroiz eta lrujo-Barriola bikoteen atzetik. Arretxek eta Beginok orain arteko denak galdu dituzte.

Era berean, gaurko lehenengo partidaren Promozio Txapelketari dagokion partida jokatuko du Iñaki Larrinaga elorriarrak; Olazabalegaz batera, Mendizabal III.a eta Galarza izango dituzte arerio. ■ J.D.

Berasaluzek eta Albisuk hiru lehiatik bi irabazi dituzte orain arte

Altzelai-Diez eta Urretabizkaia irabazle Olazar txapelketan

Final ikusgarriak jokatuko zituzten Zaldibarren

Zaldibarko Olazar pilota txapelketak final dotore bi utzi zituen. Lau t'erdian Urretabizkaia (Ikaztegieta) 22-16 irabazi zion Bilbaori (Ziburu, Lapurdi). Final hori Elezkano II.a zen jokatzen, baina sorbaldako lesio bat tarteko Urretabizkaia hartu zuen bere lekua, eta ondo aprobeztatu zuen aukera.

Binakako partidaren ere emozioa izan zen nagusi. Altzelai arrigorriarrak eta Diez portugetetarrak 22-20 irabazi zieten Yoldi uhartearrari eta Arratibel ataundarrari. Oreka izan zen nagusi, azken unera arte. Yoldik iaz txapelketa irabazi zuen, eta aurten txapeldunorde geratu da. ■ J.D.

Ziklo-kros proba eta mendi martxa Berrizen

Zapatuan Berrizko II. Ziklo-kros Sari Nagusia proba lehiatuko dute, eta domekan mendi bizikleta ibilaldia egingo dute Oizko inguruetan



Iaz 600 parte-hartzaile inguru batu zituen mendi bizikleta ibilaldiak. Berriz mtb

Berrizko Ziklo-kros Sari Nagusia iaz berreskuratu zuten (1991n antolatuta zuten azkenekoz), eta jasotako harrera onak aurten berriro prestatzera animatu ditu antolatzaileak. Lasterketa zapatuan 10:00etan

hasiko dute. Munduko Ziklo-kros Kopako proba ere egun berean denez, elite eta 23 urtez azpiko kategorietan baliteke izen garrantzitsu batzuk falta izatea, baina Berriz Bizikletari elkartearen presidentea Alex Duranen hitzetan

Ziklo-kros probak iaz baino zailtasun txikiagoa izango du

Etiket kanpora kamuts darrai Elorriok futboleant

Ohorezko mailako lehen itzulia amaitzear dagoenean, Elorriok etiket kanpora irabazi barik jarraitzen du. Orain arte Eleizaldetik kanpora jokatuak zortzi partidetatik hiru galdu eta bost berdindu dituzte.

Etiket kanpora bi gol bakarrik sartu dituzte zortzi partidatan

Elorrio golik gutxien sartu duen taldea da Indautxugaz batera, eta baita gutxien jaso duen bigarren taldea ere; 11 gol alde eta 11 kontra. Etiket kanpora lortutako bost berdinketatik lau zeronako berdinketaz amaitu dituzte; lau partida horiek errenkadan jokatu zituzten Indautxu, Santurtzi, Erandio eta San Pedroren aurka. Azken partida bietan, ordea, bolada hori eten da, eta galdu egin dute Gurutzetan eta Somorrostron. Etiket kanpoko partidetak irakurketarik negatiboena sartutako gol kopuruan dago; bi gol sartu dituzte zortzi lehiatan. ■ J.D.

Espainiako Txapelketan zilarra Murgoitioarentzat

Zirkuituak ez zuen ahalbidetu aukeraketarik, eta sprintetan erabaki zen txapelduna

Isaac Suarezek irabazi zuen Gandian jokatuak Espainiako Txapelketa, sprintean nagusitu ondoren. Hirumet taldeko Egoitz Murgoitio bigarren amaitu zuen.

Aurten Euskal Herri eta estatu mailan goitik beherako nagusigoa erakutsi duen abadiñarra (12 lasterketa irabazi ditu) modu guztietara saiatu

zen aurkariak atzean uzten, baina zirkuituak ez zuen gogortasun nahikorik: "Ahalegindu naiz, baina ez zen posible. Zirkuituaren gauzarik txarrena ez zen arriskutsua zela, baizik eta ez zuela ahalbidetzen aukeraketarik". Orain, Belgikan urtarrilaren 28 eta 29an lehiatuko den Munduko Txapelketa du begiz jota Murgoitio. ■ J.D.



Murgoitio podioan, Isaac Suarezen ondoan.

"horrelako lasterketak garrantzitsuak izaten dira kadete eta gazte mailako txirrindularientzat". Hala ere, Aitor Hernández, Naia Alzola eta Jonathan Lastra lako txirrindulariak batuko dira Berrizen.

Probak nobedade bi ditu aurten. Berrizburu eta Iremiñe inguruetan osatu duten kilometro bi eta erdiko zirkuituak futbol zelaiaren parean izango ditu irteera eta helmuga, eta ez belodromoan iaz legez. Bestalde, iazko parte-hartzaileen iritziak kontuan hartuz, leundu egin dute zirkuituaren zailtasun maila.

Iñaki Lejarretak hiru ibilbide prestatu ditu bizikleta martxarako

Probaren aurkezpenean Agus Ruiz Bizkaiko Txirrindularitza Federazioko presidentek nabarmendu zuenez, "Bizkaiak dauka ziklo-kroseko egutegirik konpletuena; bederatzi proba, guztira".

Mendi bizikleta martxa

Domekan 10:00etan hasiko da mendi bizikleta martxa. Iñaki Lejarretak diseinatutako hiru ibilbide egongo dira aukeran: 23, 29 eta 35 kilometrokoak. Irteera eta helmuga Berrizko tren geltokian egongo dira, eta ibilbideak Oiz mendiko parajeetan zehar eramango ditu parte-hartzaileak.

Izen-ematea doakoa da. Iaz 600 parte-hartzaile izan zituen bizikleta martxak, eta jende kopuru horri aurre egiteko Eitua poligonoan aparkalekuak egokitu dituzte. ■ J.D.

Durangaldeko pilota txapelketa azken txanpan

Durangaldeko pilota txapelketa finalurrekoak jokatu dituzte asteburuan Atxondon eta Berrizen. Finalak hilaren 20an eta 21ean izango dira Zaldibarren. Barikuan, 18:00etan hasiko dira Atxondon lehen finalurrekoak. Benjaminetan Lekeitio eta Atxondo lehiatuko dira; kimuetan eta gaztetxoan mailan Durango eta Atxondo; kadeteetan Zaldibar bat eta Mallabia; Gazteetan Zaldibar eta lurreta, eta nagusietan Markina eta Durango.

Zapatuan jokatu da finalurrekoetako bigarren txanda, Elorrioren, 16:30etik aurrera. Benjaminetan Elorrio eta Markina izango dira aurrez aurre; kimuetan Lea Ibarra eta Markina; gaztetxoan mailan Zaldibar eta Lea Ibarra; kadeteetan Lea Ibarra bi eta Mallabia hiru, eta gazteetan zein nagusietan Abadiño eta Lea Ibarra.

Finalak ere jardunaldi bitan banatu dituzte. Kadete, gazte eta nagusienak urtarrilaren 20an ebatziko dira Zaldibarren; benjamin, kimu eta gaztetxoan 21ean. ■ J.D.

Agenda

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Durangoko Kulturala - Laudio

Zapatuan, 17:00etan, Tabiran OHOREZKO MAILA

Elorrio - Galdakao

Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

GOREN MAILA

Zaldua - Otxarkoaga

Zapatuan, 16:30ean, Solobarrian

HIRUGARREN ERREGIONALA

Elorrio B - Zaldua B

Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden

Berriz B - Ezkurdi

Domekan, 11:30ean, Berrizburun

Iurretako B - Lipa Amorebieta

Zapatuan, 17:30ean, Larrakozelain

LEHENENGO ERREGIONALA

(emakumeak)

Elorrio - Berrio-Otxoa B

Domekan, 17:00etan, Eleizalden

Iurretako B - Leloako emakumeak

Zapatuan, 15:30ean, Larrakozelain

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Sasikoa Durango - Bilbo Tecuni

Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian

EUSKAL LIGA

Kurutziaga Ikastola - Lagun Onak Galdakao

Zapatuan, 19:15ean, Landako kiroldegian

GOREN MAILA

Presion Break - Atxure Bakio

Zapatuan, 17:15ean, Berrizburu kiroldegian

LEHENENGO ERREGIONALA

Abadiño Gaztetxe - Soloarte B

Zapatuan, 15:10ean, Elorrioko kiroldegian

BIGARREN ERREGIONALA

Gu Lagunak - Gernika

Zapatuan, 16:00etan, Landako kiroldegian

SASKIBALOA

LEHENENGO MAILA

Tabirako - La Peña Basket

Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian

LEHENENGO ERREGIONAL

BEREZIA

Tabirako - Balmaseda

Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian

Anbotopeko - Askartza

Zapatuan, 18:00etan, Tabiran

BIGARREN ERREGIONALA

Julza-Zaldua - Begoñazpi

Zapatuan, 16:30ean, Zaldibarko kiroldegian

ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

Durango Ilarduya - Independiente

Zapatuan, 16:30ean, Arripausetan

EUSKAL LIGA

Durango Ilarduya - Hernani

Zapatuan, 18:30ean, Arripausetan

TOPAKETA

Errugbi triala:

Zapatuan, 10:00etatik aurrera, errugbian dabilzan emakumei zuzendutako triala.



Bizikletak erosteko diru-laguntza ematen hasi da Durangoko Udala

Hiri-bizikletentzat da laguntza; umeen bizikletak, errepidekoak eta mendikoak ez dituzte diruz lagunduko

Laguntza jasotzeko Durangoko dendetan erosi beharko dira bizikletak, martxoaren 31 orduko

Bizikletaren erabilera bultzatzeko 6.000 euroko diru poltsa ipini du udalak, Durangon erositako bizikleten kostuan laguntzeko

Durango dendetan martxoaren 31 baino lehenago bizikleta erosiz gero jaso daiteke Durango Udalak atera berri duen diru-laguntza. Dekretu baten bidez, 6.000 euro banatzea zehaztu dute bizikleten kostuan laguntzeko.

Bizikletaren kostuaren erdirainoko laguntza emango du udalak, eta gehienez 100 eurokoa izango da. Udal iturrietatik adierazi dutenez, hiri-bizikletei dagokien diru-laguntza da, eta bizikletak paseoak ematekoak, tolesgarriak edo hibridoak izan daitezke. Ez dute diru-laguntzarik emango umeentzako bizikletentzako, mendi bizikletentzako eta errepideko bizikletentzako. Diruz lagundutako bizikletak pedalei eraginda dabiltzanak zein motordun bizikletak ere izan daitezke.

Abenduaren 15etik hona erositako bizikletentzako ere bada diru-laguntza. Diru hori eskuratu ahal izateko, Durangon erroldatuta egotea beharrezkoa da. Eskatzaile bakoitzak bizikleta bakar bategatik jaso ahal izango du udalaren diru laguntza.

Guztira, esandako moduan, 6.000 euro banatuko ditu Durangoko Udalak, eta eskariak aurkeztzen diren ordena kontutan hartuta banatuko dira diru-laguntzak, horretarako gordetako dirua agortu arte.

Bertako dendetan

Diru-laguntza eskuratu ahal izateko, bizikletak Durango dendetan erosi beharko direla zehaztu dute Durango Udalak atera berri duen dekretuan. Baldintza hori ipinita, bide batez

"Durango merkataritzari bultzada" eman gura diotela adierazi du Iker Ocejá Garapen Jasangarriko Batzordeko presidentek.

Informazioa etxez etxe

Hiri-bizikletak erosteko diru-laguntza emateaz gainera, udala egunotan bizikletazaleen eta oinezkoen elkarbizitzaren inguruko informazioa banatzen dabil etxez etxe.

Iker Ocejá nabarmendu duenez, "Durango hirigune atseginagoa eta jasangarriagoa bihurtu gura dugu". Herri barruan batetik bestera mugitzeko ohiturak aldatzearen garrantziaz berba egin du. Durangarrak "autoek eragiten duten kutsadura alde batera utzi" eta bizikleta erabiltzera animatu gura izan ditu Ocejá.

Jatetxe gida



Ganeko Etxe

Elizondo z/g, Berriz
Tel.: 94 682 40 27

Aintzinako baserri baten gerizpe gozoan etxeko moduan sentitzeko. Arrain errea kartan. Eguneko menua: 8 euro



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua. Karta. Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta. Txuleta errea. 75 lagunentzako jangela.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara. Taldeentzako menu adostuak. Askariak.



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik. Pintxoak. Eguneko menua. Menu bereziak. Kartan, aukerako okelak txingarretan.

Oilaskoa txanpanetan

Osagaiak:

- Oilasko bat
- Txanpan baso bat
- 250g txanpinoi
- 50g gurin
- 2 olio koilarakada
- Limoi 1
- Gatza

Prestaketa:

Zatitu oilaskoa zortzi zatitan eta bota gatza. Bota gurina eta olio oliaskoari, eta ipini kazola batean. Bota irina bertan, eta egiten utzi kolorea hartu arte, bota txanpaina eta baita limoiaren zukua ere. Ondo nahastu eta bota oilaskoari. Ondoren, moztu txanpinoiak tiratan eta bota limoizko zukua txanpinoietara. Tapatu kazola eta utzi su apalean egiten, oilaskoa, ondo egin arte. Arrozagaz lagunduta zerbitu daiteke.



Elorrioko Batzokia

Urarka 13, Elorrio
Tel.: 94 658 32 18

Gosariak. Pintxoak. Eguneko menua. Asteburuko menuak. Plater konbinatuak, bokatak, pizzak. Pintxo kateringa. Zorion askariak.

batzokiellorrio www.batzokiellorrio.com

AGENDA >

> ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Urtarrilaren 13an, Elorrión

CARAMALAREN 'CAMELO'

"Zer egingo zenuke, zure ahizpak karamelo bat eskatzen den eran, giltzurrun bat eskatuko balizu?" galdera botatzen dute *Caramelo* antzezlanaren aurkezpen orrian. Carmen Baquero, Virginia Muñoz eta Noemí Ruiz dira obraren hiru antzezleak, eta elkarrengandik aldenduta bizi izandako hiru ahizparen elkartzea umorez kontatzen dute obra honetan.

ANTZERKIA

BERRIZ

>> Urtarrilaren 20an, Karlik Danza Teatro taldearen **Princesas olvidadas o desconocidas** obra, 20:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO

>> Urtarrilaren 15ean, Excentricas Producciones talde galiziarren **Shakespeare para ignorantes** obra, 19:00etan, San Agustín kulturgunean.

ELORRIO

>> Urtarrilaren 13an, Teatro Caramala taldearen **Caramelo** antzezlan, 22:00etan, Arriola Antzokian.

ZORNOTZA

>> Urtarrilaren 13an, Ttanttaka Teatroa taldearen **Contra el viento del norte**, 21:00etan, Zornotza Aretoan.

ERAKUSKETA

DURANGO

>> Urtarrilaren 29ra arte, **Alberto Palomeraren** margolanen erakusketa, Arte eta Historia Musean.

ELORRIO

>> Urtarrilaren 13tik otsailaren 1era arte, Asier Sanz margolariaren **Bilbo, labirinto magikoa** erakusketa, Iturri kultur etxean.

IRTEERA

IURRETA

>> Urtarrilaren 14an, Gazte Asanbladak antolatutako irteera **Upategira**, 10:00etan Maspeko autobus geltokitik aterata. Izen-ematea Gau-Argi edo Intxaurren.

JAIK

BERRIZ (San Antonio)

>> Urtarrilaren 13an, Zarazu antzerki taldearen **Familian** ikuskizuna, 18:00etan, kultur etxean. **Sagardotegi ibiltaria** eta erromeria, 19:30etan, eta odoloste jana, Olakueta plazan. Donien atxa altxatzea, 20:00etan, Olakueta plazan. Zarazu taldearen kontzertua, 21:00etan, plazan. **Froufe** eta **Ni neu** kontzertuan, 22:30ean, Hiltegeixeko Gaztetxean.

>> Urtarrilaren 14an, **Berrizko ziklo-kros sari nagusia**, 10:00etatik 14:00etara, Berrizburun. **Berto bazkaria Gaztetxean** 14:30ean. Korri, Xaltoa ta Brinko **Entresaka**,

17:30ean, Olakueta plazan. **Karro poteoa**, Gaztetxean hasita. **San Antonio VI. pilota txapelketaren** finalak, 18:30ean, Olakuetako frontoian. **Lisker** taldeagaz erromeria, 19:30etik 21:30era, eta 00:30etik 02:30era. **Zain** eta **Mafia**, 22:30ean, Hiltegeixeko gaztetxean.

>> Urtarrilaren 15ean, **Mendi bizikleta ibilaldia**, 10:00etan Kultur Etxe aurretik aterata. **Eskualdeko XXXI. barazki eta fruitu erakusketa**, 11:00etan, probalekuan. **Trikitilarien animazioa**. **Artisauen txokoa**, 11:00etan, frontoian. **Bizkaiko bildots dastaketa**, 12:00etan, Olakueta plazan. **Iremiñe dantza taldearen** ekitaldia, 13:00etan, Olakueta plazan. Txintxaun kolektiboaren **The Full Monty**, 19:00etan, Kultur Etxean.

IURRETA (Bakixa)

>> Urtarrilaren 13an, **Donien atxa altxatzea**, 21:00etan, eta ondoren, **txokolatada**.

>> Urtarrilaren 14an, **tiro txapelketa**, 11:30ean. **Bakailao txapelketa** aurkezturiko kazolen aurkezpena, 21:00etan.

>> Urtarrilaren 15ean, **kalejira**, 10:00etan. **Briska txapelketa**, 17:00etan. Maiztegi H.E. **Dantza** taldearen emanaldia, 17:00etan. Ume jolasak eta txokolatada.

>> Urtarrilaren 20an, (San Sebastian Deunaren Eguna). **Meza**, 11:30ean. **Ander eta Egoi trikitilariak** eta **Igel txapelketa**.

KONTALARIA

DURANGO

>> Urtarrilaren 20an, **Ines Bengoaren Vamos a contar mentiras, tralará**, 20:00etan, Bibliotekan.

LEHIAKETA

IURRETA

>> Urtarrilaren 29ra arte, Bibliotekan aurkeztu daitezke **Iurretako IX. literatur lehiaketarako** lanak.

MUSIKA

DURANGO

>> Urtarrilaren 14an, Durangaldeko **Sermonds** eta **Kilauea**, Bilboko

Muturbeltz eta Madrilgo **Motociclón** taldeen kontzertua, 21:30ean, Plateruenean.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

La hora mas oscura 3D

Zuzendaria: Chris Gorak

barikua 13: 19:00/22:30

zapateria 14: 19:30/22:30

domeka 15: 20:30

astelehena 16: 19:00/22:00

martitzena 17: 20:00

Umeen zinema

Arthur Christmas

Zuzendariak: Sarah Smith eta

Barry Cook

zapateria 14: 17:00

domeka 15: 16:00/18:15

Zineforuma

La guerra de los botones

Zuzendaria: Christophe Barratier

eguna 19: 20:30

ELORRIO

Arriola

El gato desaparece

Zuzendaria: Carlos Sorin

zapateria 14: 22:30

domeka 15: 20:00

astelehena 16: 20:00

Umeen zinema

Katu bat Parisen

Zuzendaria: Jean-Loup Felicioli

eta Alain Gagnol

domeka 15: 20:00

ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

El niño de la bicicleta

Zuzendaria: Jean-Pierre eta Luc

Dardenne

domeka 15: 20:00

astelehena 16: 20:00

Umeentzako zinea

Vicky el vikingo y el martillo de Thor

Zuzendaria: Christian Ditter

domeka 15: 17:30



Urtarrilaren 14an, Berrizko Hiltegeixeko gaztetxean

ZAIN + MAFIA

Hiltegeixeko gaztetxean Olakuetako jaietarako osaturiko egitarauaren barruko kontzertua da urtarrilaren 14an, 22:30ean hasita. Zain eta Mafia herriko musika taldeek eskainiko dutena. Gaztetxean jaietarako prestatutako beste musika emanaldia gaur hartuko du Hiltegeixek: Froufe eta Ni Neu bakarlarri berriztarrek jardungo dute oholtzan.

urtarrileko agenda



Urtarrilak 13,14,15,20 • Bakixako Jai Batzordea

13an, 21:00 Jaietako hasiera emateko Donien Atxa jasoko da Jarraian, txokolatada
14an, 11:30 Tiro txapelketa
21:00 Bakailao txapelketa (parte hartu dutenek prestatutakoa aurkezteko ordua)
15ean, 10:00 Kalejira
17:00 Briska txapelketa
17:00 Maiztegi H.E. Dantza taldea.
Ondoren, ume jolaskak eta txokolatada
20an, San Sebastian Deubarebin Eguna
11:30 Meza Santua
Ander eta Egoi trikitilarietako giroa alaituko dute. Arratsaldean, Igel txapelketa, sari sorpresarekin

Urtarrilak 14-15 • Iurreta Txirindulari Elkarte
10:00 Hainbat ibilbide (65-71 km)

Urtarrilak 15 • Herria auzo elkarte

"Durangaldeko Elkartasun Karabana 2012" Gizarte Ongizatea.
Urtarrilaren 15a arte:
- Jubilatuen Etxean (Bixente Kapanaga, 9)
- Ibarretxe kultur etxea (Bidebarrieta, 4)
- Bulego orokorrak (Bidebarrieta, 5)

Urtarrilak 18 • Emoixu
16:30-21:00 Odol emotea, Txonpolo elkarte

IURRETAKO UDALA

ZORION AGURRAK >

zorionak@anboto.org • Eguazteneko 17:00ak arteko epea



Ander Arkarazok abenduaren 29an 12 urte egin zituen. Zure aitaxo eta amatxoren partez, zorionak eta musu handi bat!



Abenduaren 22an **Zaloak** 8 urte bete zituen. Zorionak, etxeko guztien partez, eta segi hain zintzo eta polit! Musu asko!



Izar Blanco Uribeziak urte bat bete zuen abenduaren 21ean. Zorionak eta musu handi bat, Unax eta etxekoen partez!



Zorionak aita-alaba hauentzat, eta jarraitu ingurukoei irribarreak sortzen! Patxo handi bat, zuen familiaren partez.



Abenduaren 27an 3 urte bete zituen gure printzesa **Ainhize Zelaietak**. Zorionak eta musu bat, aitita, amama eta izekoen partez!



Mainerrek abenduaren 23an 5 urte egin zituen. Zorionak eta musu handi-handi bat, maite zaitugun guztien partez!



Mikelek, gure karateka trebeak, 5 urte bete zituen abenduaren 28an. Musu pila bat, denon partez gure mutil haundiari!



Zorionak **Igor!** Gure mutilak abenduaren 28an 7 urte bete zituen. Musu eta besarkada handi bat etxekoen partez!



Danel Huarte naiz. Urtarrilaren 5ean heldu nintzen nire anaia Manex ezagutzeko gogoekin. Tolosan bizi arren, Abadiñon ere gerra apur bat emango dut!



Zorionak **Gaztañatzako** txikiari, 8 urte bete dituzulako urtarrilaren 12an... Zorionak **Garazi!** Musu handi bat etxeko denen partez.



Alaznek urtarrilaren 10ean 17 urte bete ebazan. Zorionak eta musu handi bat etxekoen partez, eta holan jarraitu!



Zorionak **Luken!** Urtarrilak 16an urteak betetzen dituen mutil guapoarentzat musu bat eta belarri tirakada, Astolako familiaren partez.



Anbotoko langile "txikiak" be 2 urte bete ditu jada! Zorionak **Anartz!** Jarraitu hain umoretsu goizero goizero Anbotora bisitatxoa egiten. Musu potolo-potolo bat zure arreba Uxue eta Anbotokoen partez!



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dugu. Beharrezkoa da bialdutako mezuagaz batera telefono zenbakia bat emotea.



Urtero legez, iurretarek eta garaitarek urtarrilaren 1a txanpanagaz eta turroiagaz ospatu zuten Gallandan.

*Andoitz Arabiourrutia
Inurrietaren senideok
Elorrioko herritarrei
eskerrak eman gura
dizkiegu egun hauetan
jaso dugun babes eta
laguntasunarengatik.
Eskerrik asko bihotz-
bihotzez.*

BOTIKAK >

- Barikua, 13**
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
- Zapatua, 14**
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
09:00-13:30
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
• Gaztelumendi (J.A. Abasolo 2 -Durango)
• Larrañaga-Balentiaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
• Urizar (Gabiola 2 - Berriz)
- Domeka, 15**
09:00-09:00
• Gaztelumendi (J.A. Abasolo 2 -Durango)
09:00-22:00
• Bengoa (Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)
- Astelehena, 16**
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
- Martitzena, 17**
09:00-09:00
• Mugica (Andra Maria 9 - Durango)
09:00-22:00
• Jaio-Olabarrieta (Erreka 6 - Elorrio)
- Eguaztena, 18**
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
- Eguena, 19**
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK >

- SOS Deiak**112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
- GARRAIOAK**
- Euskotren902 54 32 10
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto.....945 28 64 66
- TAXIAK**
- Abadiño94 681 44 70
Matiena606 45 99 88
Durango Geltokia94 681 10 01
Elorrio Geltokia.....94 682 00 40
J.L. Uriarte670 40 20 02
I. Estebez670 67 82 73
M Galeano670 40 93 30
lurreta94 620 15 65
Taxi auzunea.....688 61 86 90
- UDALAK**
- Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango.....94 603 00 00

- Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
lurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16
- UDALTZAINGOA**
- Abadiño94 621 55 33
Berriz.....94 682 40 36
Durango.....94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
lurreta94 620 08 88

EGURALDIA >

- 3 **12°** BARIKUA ☁
3 **12°** ZAPATUA ☁
5 **14°** DOMEKA ☁
4 **12°** ASTELEHENA ☁
2 **13°** MARTITZENA ☁

AZOKA-BASERRITIK PLAZARA >



Abadiño (Traña-Matiena) - Eguaztenetan 10:00etatik aurrera
Durango - Zapatu goizetan
Zornotza - Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

- Letxuga.....0,80 euro
Tomateak..... 3 euro/kg
Porruak..... 1,80 euro/tx
Kalabaza.....2,50 euro/kg
Azenaorioak..... 1,50 euro/tx
Azalgak..... 2 euro/kg
Romaneskua..... 3 euro/kg
Indabak..... 15 euro/kg
Arrautzak..... 3,60 e/dozena
Idiazabal gazta.....16,50 e/kg
Ogi zuria..... 3,30 euro



Iñaki Sánchez
Irakaslea

Neure laguna

Badaukat lagun bat Samur Joz Mc Arra izenekoa. Lan egiten duen herriko herritartzat du bere burua, nahiz eta kanpotarra izan. Euskara ere ikasi zuen, ingurune erdaldunean bizi eta hazi zen arren. Gizon zintzo bezain polemikoa da, izan.

Lan egiten duen herriko herritartzat du bere burua, nahiz eta kanpotarra izan

Oraingoan gaixorik dago, eta gaixotasunak desitxuratu egin du. Baina, kanpoko itxura beteak bere baitako hutsuneak islatzen ditu; hutsuneetan zerrenda luzea egin du: lankideak, kafetegietako jabeak eta bertan izandako elkarrizketa biziak, trenez egindako bidaiak, batzarretan izandako ezadostasunak eta pozik lortutako akordioak, jantokiko beharginak, herriko lagunak, batzordekideak, bulego teknikoko kudeatzaileak, administraritzako lankideak, fabrikari dauden "bezero gazteak" eta eurretari familia asko ere.

Bat-batean Gari abeslariaren kanta gogora datorkio: 'Esperantzara kondenatua'

Ezin ahaztu mantenu lanetan jarduten dutenak, ezta garbitzaileak ere.

Bat-batean, Gari euskal abeslariaren kanta gogora datorkio: *Esperantzara kondenatua*. Barre egin du; lankideok, ok? Goraintziak neure lagunaren partez.

"Batzuek oso txarto pasatu dute kritikekin; garesti atera zaie"

ETB2ko 'El Conquistador del Aconcagua' saioan parte hartu dute Iñaki Sagarnak eta Lourdes Basterretxeak; azkenak irabazi du

Lourdes "Lur" Basterretxeak mendizaletasuna telebistara eroan eta ondo baino hobeto frogatu du, Aconcaguara lehenengo igota saioa irabazi du-eta. Kirola maite du, eta antzeko ekimenen batean berriro parte hartuko lukeela dio. Iñaki Sagarna "Txileno"-k ez du hainbesteko joerarik kirolerako, baina abenturazale amorratua da. Txiletik gaztetan etorri zen Gorbeako artzainaren biloba, gero Pastor del Gorbea jatetxea zabalduz.

Zer ekarri duzue Aconcaguako esperientziatik?

I.S.: Lagun oso onak, batez ere. 24 orduan muturreko egoera bizi izan dugu, telebistan ikusi daitekeena baino handiagoa. Jendea irabazteko egiten zaio laguntasunarena ulertzea, baina 24 orduak elkarregaz bizita, hango egun bat hemengo hilabete bat baino gehiago izan daiteke.

L.B.: Norbera hobeto ezagutzen laguntzen du. Gainerakoak antzetzten ari direla igarri eta esaten dugu: "Zelakoak dira kideak?"; "Zelakoa naiz ni neu?". Bestalde, han ez dugu izan dutxarrik, telefonorik, kamerarik... Hona zator eta armairuan ez dakit zenbat arropa ikusi dezakezu. "Zertarako behar dugu guzti hau?", diozu.

Argazki kamerak falta, baina bideo kamerak sobera.

I.S.: Bai, baina horren nozioa galitzen dugu. Niri joan aurretik esan zidaten era batekoa izan nintekeela edo antzestu ere egin nezakeela. Baina bigarren egunerako zu zeu zara.

Eta zelakoa izan zen tontorrerako igoera?

L.B.: Nire buruagaz harrituta gertatu nintzen. Ondo eraman nuen; ez nuen burukominik edo arnas-teko arazorik eduki. Gindoazen erritmoan bikain nindoan.

I.S.: Hanketan hotz izan nuen. Ez dakit elurra sartu zitzaidan, edo agian izerdia bera zen. Umelduta nituen oinak, eta behatzak more nituela jaitsi nintzen. Hori baino gehiago, baina, fisikoki indartsu ez nengoelako eman nuen buelta. Azken zatia zen gogorrena, eta igo

izan banu ere, gero ezin izango nuen jaitsi.

Lur, azalduiguzu gora ailegatzeari sentitutakoa.

L.B.: Ondo heldu nintzen, eta harrigarria izan zen goikoa, guztiak niri itxaroten zeuden-eta. Jende askok "Iupi!" esan nuelako ziztatzen nau, baina zer gura zuten egitea, bada? Ez naiz zarataka hasten denetakoa, baina barrutik sekulako poztasuna neukan. Paisaia ikaragarria zen handik.

Juanito Oiartzabal izan duzuegidari. Trapuzikunik?

L.B.: Ez nuen ulertzen berak buruan pertsona batzuk edukitzea faboritotzat; besteok ez genuela balio zirudien. Hala ere, kameraz kanpo barre asko egin dugu elkarregaz. Beragaz 8.000 m-ko mendi bat egin dezakedala esateak poztu ninduen.

I.S.: Behin esan zuen puntua nik merezi nuela, baina ez zidala niri emango. Onartu nuen, baina min egiten du. Ni oso ondo moldatu nintzen Juanitogaz. Badu bere alde ona ere. Gabonetan zoriondu egin ninduen!

Lourdes Basterretxea eta Iñaki Sagarna •

Elorriarra eta abadiñarra

Errepikatzen du moduko esperientzia da?

I.S.: Niri mugak aurkitzea gustatzen zait; hala nabil abenturetan, 17 urte neuzkanetik. Saiok horretarako aukera eman dit; orain mendiaren bidez, baina izan zitekeen igerian egitea ere.

L.B.: Hainbeste proba

beharrean, mendiagaz lotura gehiagoko zerbait gurako nuke.

Ametsak desiluiso ere ekar dezake, txarto ateraz gero...

I.S.: Aconcaguara igotzea bada zure ametsa, nik ez nuke jokoan jarriko kanpoko faktore batzuen arabera.

L.B.: Gauza negatiboetan ere pentsatu behar da, anonimotasunetik publikotasunera igarotzen zara-eta.

Jende jakin barik kritikatzeko du, eta batzuek oso txarto pasatu dute; garesti atera zaie.



Bodegas Launa Arabar Errioxa

Launa plus Ondua

www.bodegaslauna.com info@bodegaslauna.com Tel.: 94 682 41 08